


1994ko martxoak 30

230. zenb.

PRESS



ARRASATE

EUSKAL HERRIKO TXIRRINDULARI

XXXIV ITZULIA



ARRASATE

1994ko APIRILAK 4



Euskadiko
Itzulia

SERIE BEREZI BERRIA

CITROËN ZX

Code

ZX Sorta
250.000

PTAko aurrezpena



Citroën ZX Code Serie Berezi Berria aurkezten dizugu. Izan ere, eta estiloa daukan serie berezi bat. Eta gainera, 250.000 pezeta aurreratzeke aukera eskaintzen dizugu Citroën ZX sortarekin. Ezin diozu promozio-aukera honi uko egin.

Ez galdu serie berezi eta mugatu hau erosteko aukera. Hiru bertsiotan duzu eskura; hiru mailatako akabatu eta ekipamendurekin dator (bertsioen arabera), inolako mugarik gabe: aleazio arineko llantak, lagundutako direkzioa, altuera aldakorreko bolantea, itxiera zentralizatua urrutiko aginduaz, barrutik aldatzeko ispilu elektrikoak, leihoen irekiera elektrikoak, behelainoarentzako argiak, irratiaren aurre-

instalakuntza, tertziopelozko tapizeria berezkoa.

Gasolinazko motore sorta zabal batekin datorren Serie Berezi Berria: 1.4i, 1.6i eta 16 balbula eta 155CV-ko superdeportiboa.

Diesel eta Turbodiesel motoreen artean ere aukeratu ahal izango duzu. Motore sendoak, baliabide ezagunekoak; ez dira alferrik izan 1993ko dieselen merkatuko salmenta-liderrak.

Citroën ZX Code Serie Berezi Berriko Txapeldun baten kodea deskubri ezazu, eta ez ahaztu eskaintzen dizugun promozio benetan aparta: 250.000 pezetaraino aurreratzea Citroën ZX sortarekin.

CITROËN ZX 1.440.000 PEZETATIK**



Chapime Tailerrak

Araba Etorbidea, z/g. Tel: 790657 eta 794522. Arrasate.



EZETZ IMAGINATU CITROËNEK ZUGATIK EGIN DEZAKEEN GUZTIA.

* Ezin gehitu daitekeen promozio-aurrezpena.

** ZX Reflex 1.4i 3p-arentzat gomendatutako prezioa. Horren barne: BEZ, Matrikulazio-Zerga, Garraioa eta ezin gehituriko Promozioa. Hilabete amaieraraino baliagarria, stock-eko ibilgailuentzat.

Opor alaiak

Bihotzean txori bat dut kantari:

Txio, txio, Udaberri.

Txio, txio, pozgarri.

**Txio, txio, ahaztu zak
nekea ta lan traketsak.**

Txio, txio, jai egunak.

Txio, txio, oporrak.

**Txio, txio, alaiki
goza adi, diberti**

Nire barne-makinaria olio paltan somatzen dut. Udaberria eta txoriaren albistea pozgarria zait. Izan ere ohikeriak, lan-nekeak, arazoak eta erasoak, zama ta moteltasuna ezarri diote nire arimari. Anima, animo, motorra.

Kotxea banintz, garajera. Pertsona naitenez, mendira?, bidaiara?, itsasora?, eskiatzera?, lagun artera?, juergara?

Nire belarriak eta begiak propagandaz eta gomendioz ase dira. Zalan-tzan nago. Tirabira ugari: gizarte giroak, lagunak, kontsumo bultza-tzaileak, bidaiak aurkezleak, alde guztietatik deika dauzkat, eta... ez dakit zer erabaki.

Hainbeste dei eta eskeintza jasotzean, susmo gaiztoek harrapatu naute: zer nahi dute guzti horiek nigan? nor ari da nire onaren bila? Erantzun asko datozkit burua: lagun bat talderako; nire dirua; gal nadila gauzetan protesta egin ez dezadan eta pasota bihurtu; horditu, pseudo-zo-

rionean konten senti nadin...

Ba ez, ez dut nahi bizitza light bat bizitzerik. Fidakaitz nauzu. Gezur liluragarri gehiegi entzun eta sinistu ditut. Sendo nahi dut bizi, sakon, gizakoi, egiz.

Non aurki dezaket giza misterio eta izaerari, nire pertsonalitateari benetan erantzun-go dieten eskeintzak, argitapenak?

Gezurra badirudi ere, orain arte behintzat, kristau komunitate bilduan aurkitu dudana Espirituaren presentzia eta Jainkoaren hitzak barne barnetik erantzun didate ta bizi-poza eman.

Ba dakit zer egin. Oporretan, nire kristau komunitatearekin bilduko naiz eta nire bizitza orekatuko dut. Ez noa inora. Arrasaten geratzen naiz.

**JOSE MARI ASTIGARRAGA
(SAGARRAGA)**



Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Memesa

79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40


Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Ihaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Lihor Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimilano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oriati).




ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Alfredo Aldai (Egin)



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du



Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotritizitatea eta
hizkuntz bereziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE



Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

CARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK



77 08 15

Intsumisiaoa!

Euskal herrian soldaduzkari eta PSS-ari intsumiso diren gazteengana gure elkartasuna adierazten dugu, eta epaketak gainean ditugun honetan bereziki uko egiten diegu espainiar eta frantses ejerzitoei, berauek baitira gure herria zatikatua eta menperatua edukitzeaz arduratuta daudenak.

Nola ez, gaur egungo alderdi sasi demokratikoen hipokresia salatu beharra dago, "Pake" hitzarekin ahoa bete bete egiten duten denbora beren ahal duten eta ejerzitorik hilkorrenak erazten dituzte beraien interes ekonomiko lotsagabeak defendatzeko, izugarriko sarraskiak baimentzen dituzte (OTANen sartu, Irakeko guda, eta, mundu osoan barreiatuturik dauden gudetan arma salmentekin ateratzen dituzte mozkinak).

Guzti hori gutxi balitz ere, soldaduzkara joatea denbora galtze izugarria da, eta abentura oso arriskutsua (behin baino gehiagotan hilda itzultzen.da) bertan ikasten diren balore bakarrak itsu itsuan aginduak betetzea eta norberaren burua lokatzaren parean jartzea direlarik. Guzti honek ondorio psikologiko latzak ekar ditzakeelarik, batez ere kuartelean bertan "nobatadak" jasan behar badira "gizon" bihurtzeko.

Ejerzitorik gabeko gizarte bat nahi dugu, honek esan

nahi duen guztiarekin, Herriek beraien arteko errespetua izan behar dutela herriaren oinarri bortxa ezina. Horretarako ezin bestekoa delarik autodeterminazio eskubidea onartzea, eta espainiar eta frantziar ejerzitoei hori galerazten duten zutabe nagusiak izanik pikutara bidali behar ditugu.

Hau dela eta gure semeak legalki bahituak izatea galarazi nahi badugu, ezinbestekoa da neurrigabeko injustizi honen aurka borrokatzea, ezin baitugu herriko gazterik espetxeratzen utzi, ezin dugu telebistaren aurrean ezer egin gabe egon, indarrak bildu ditzagun eta intsumisioaren aldeko plataformak egingo dituen deialdi eta ekintzetan parte har dezagun.

Jaio naiz aske izateko eta ez soldaduzkara joateko!

ARRASATEKO KAS

OHARRA

Aste Santuko jaiak direla eta, datorren astean ez da izango Arrasate Pressik. Hurrengo alea apirilaren 15ean izango duzue etxean. Ordura arte: ondo izan!

IBARRA Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua




Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan

ASTELEHENETIK OSTRALERA ARTE

Goizeko 9etatik 1a arte

TFNOA: 79 19 21



Baduzu idolorik txirrindularitzan edo beste kirolen batean?



Birjina San Roman
Komertziala (27 urte)

Gorospe, Julian Gorospe. Ona delako eta suerte gutxi-
txoago eduki duelako, igual horregatik. Ez da Indurain bezain famatua, baina...



Iñaki Zeziaga
Jubilatua (64 urte)

Nik futbolien eitten nauen. Orduan asko zien onak: Mondrauen ekindda Erregetxo bat, Juanito Kurri oiñ hil dana eta asko. Realien, Patri Mondraukue, Luis Eriz, nire anaia, Imanol Dibino eta beste asko.



Josune Askasibar
Ingeles irakaslea (26 urte)

Ni kirolean ez naiz asko enteratzen. Ikusteko, rugbya gustatzen zait; baina bestela, beti futbola, eta nazkatuta nago.



Patxi Andres
Komertziala (31 urte)

Jende gehienak bezala, imajinatzen dudanez, Indurain. Gertuagoko baten bat egongo balitz... baina ez dago inor ere.



Juanita Fundazuri
Taxista (58 urte)

Indurain, horixe, horixe! Hori ezagutzen dut, baina beste inor ere ez, nor direnik ere ez.




Felix Elortondo
Langabetua (30 urte)

Hemengo txirrindulari euskaldunak, batez ere. Fanatiko, lehen, Marinorena. Beti Marinoren alde.



Lorea Madinabeitia
Etxekoandrea (29 urte)

Esango dizut, ba, adibidez, Fede Etxabe. Nire gizona ere lehen txirrindularia zen, Rikardo Iturbe Bergarakoa.



Jose Luis Diez
Arotza (44 urte)

Miguel Indurain. Horrek korritzen duenean, segitzen dut bai. Besteak ez, ez zaizkit interesatzen.

**ROTULOS ZABALETA**
ERA GUZTIETAKO ROTULOAK
San Lorenzo Industrialdea Tfnok: (943) 76 57 34 FAX: 76 58 53
Amillaga, 21 (Gasolindegiaeren parean) BERGARA

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
Setatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

CARMEN
Ileapaindegia
Astelehen goizetan zabalik
ferrerias, 32
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguaitorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantziak 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udaltalde 79 09 00
 Udaltaldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterraon 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 1.
 Egunez 22ak arte: Ruiz, Magdalena.
 Gaeuz: Guallar. San Antonio.

Larunbata 2
 Egunez 22ak arte: Morales. San Andres.
 Gaeuz: Estella. Matxiategi.

Igandea 3
 Egunez 22ak arte: Corcuera. Musakola.
 Gaeuz: Estella. Matxiategi.

Astelehena 4
 Egunez 22ak arte: Ruiz, Magdalena.
 Gaeuz: Perdro Deunaren.

Asteartea 5
 Egunez 22ak arte: Español. Iturriotz.
 Gaeuz: **Camacho. Oxirondo.**

Asteazkena 6
 Egunez 22ak arte: Corcuera. Musakola.
 Gaeuz: **Puy. Barrenkale.**

Osteguna 7
 Egunez 22ak arte: Irizar. Erguin.
 Gaeuz:Guallar. San Antonio.

1 OSTIRALA

ZINEA
 "Nacida Ayer". 5etan 7.30etan eta 10etan.

DOKE TXAPELKETA
 Monterron ondoko zelaian. Goizeko 10ak aldera, 14 elkarteren arteko lehiaketa. 12etan, zinegotzi eta SUD-Cekoen artean.

OSTIRAL SANTUA
 San Juan Bataiatzailearen Parrokian, goizeko 9etan Gurutz Bidea, 11etan elkarteko penitentzia, arratsaldeko 5etan Jesusen heriotzaren ospakizuna, arratsaldeko 8etan Amabirjinari erredua.

Esperantzaren parrokian, 11etan Kalbarioak, 5etan Jainkoaren Nekaldiaren ospakizuna. San Andresen, 11etan Via-Crucis, 5etan Jainkoaren Nekaldiaren ospakizuna. San Frantziskon, 9etan Gurutz-Bidea, 6etan Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna. Santa Teresan, 12etan Via-Crucis eta 5etan Nekaldiaren ospakizuna. Santa Marinaran 11etan Via-Crucis eta 6etan Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna.

2 LARUNBATA

ZINEA
 "Nacida Ayer". 5etan 7.30etan eta 10etan.

NAZIOARTEKO FUTBOL PARTIDUA
 Jubenil kategoria. Gipuzkoako selekzioa, Liverpoolen aurka. Atxabalpen, arratsaldeko 5etan.

LARUNBAT SANTUA
 Pazko gau-beilak. San Juan Bataiatzailearen Parrokian gaueko 10etan. Esperantzaren Parrokian 8etan. San Andresen 10etan. San Frantziskon 9.30etan. Santa Teresan 8etan. Santa Marinaran 10etan.

HITZALDIA
 Gaia: txirindularitza. Hizlari: Julian Gorospe, Sabino Padilla medikua eta Txomin Perurena. Monterronen, arratsaldeko 7.30etan.

TENIS TXAPELKETA

Aukeak antolatuta. 3 kategoria: 14 urtetik beherakoentzat, 14-18 urte bitartekoentzat eta 18 urtetik gorakoentzat. Izenematea apirilaren 4a baino lehen, Musakolako Kiroldedean.



3 IGANDEA

ZINEA
 "Tierras de Penumbra". 5etan 7.30etan eta 10etan.

BERPIZKUNDE IGANDEA
 San Juan Bataiatzailearen Parrokian 11etan Meza Nagusia. Esperantzaren Parrokian, 11etan Bazko eguneko Meza Nagusia eta 12.30etan gazteleraz. San Andres Zentroan, 11etan Meza Santua euskaraz, 12etan gazteleraz eta eguerdiko 1.45etan baitaioak. Santa Marina Zentroan, Meza Santua eguerdiko 12etan.

DANTZALDIA
 "Eguzki" taldearekin. Sebero Altube Plazan. Arratsaldeko 6.30etatik 9etara eta 10.30etatik aurrera.

KONTZERTUA
 "Punk Ska" Burdeoseko taldearen kontzertua. Gaueko 9etan. 300 PTA.

ZINEA
Apirilaren 9, 10, 11 eta 12an "El Piano" filmea egongo da ikusgai Alai zineman.

TAILA IKASTAROA
 Apirilaren 11tik aurrera. 30 orduko ikastaroa. Maila, hasierakoa. Uriburu kaleko tailerlean. Izena emateko, iluntzean dei egin telefonoa zenbaki hauetara: 794079 (Felix) edo 792992 (Iñaki). Antolatzailea, Arrasateko Tailaginen Elkarte. Laguntzailea, Arrasateko Udala.

4 ASTELEHENA**ZINEA**

"Tierras de Penumbra". 5etan
7.30etan eta 10etan.

**EUSKAL HERRIKO
TXIRRINDULARI ITZULIA**

Irteera ordu 2etan eta helmuga
arratsaldeko 5etan.

DANTZALDIA

"Anaiak" taldearekin. Sebero Al-
tube Plazan, arratsaldeko
5.30etatik 9.30etara.

**BASKET TXAPELKETA**

**Aukeak antolatuta. 2
kategoria: 16 urtetik
beherakoentzat eta 16
urtetik gorakoentzat.
Izenematea apirilaren
4a baino lehen, Mu-
sakolako Kiroldegian
edo Iturripeko Kirold-
egian. Partiduen arauak
Arrasateko bi polikirol-
degietako oharren
taulan agertuko dira.**

**FAMILI ETA GIZARTE
HEZKETARAKO
ZENTRUKO IKASTAROA**

Gaia: Kultura Orokorra, test
psikoteknikoak egiten jakiteko
teknika desberdinak. Iraupena
40 ordu. Astelehen eta asteaz-
kenetan, 4etatik 6etara.
Hasiera, apirilaren 18an.
Izenematea, apirilaren 11tik
15era. Tlf: 790459.

5 ASTEARTEA**ZINEA**

"Tierras de Penumbra". 7etan
eta 9.30etan.

**EUSKAL HERRIKO
TXIRRINDULARI
ITZULIAREN IRTEERA**

Eguerdiko 12etan.

**ARGAZKIERAKUSKETAREN
AMAIERA**

Euskal Txirrindularitzaren histo-
ria erakusketa ikusteko
azken aukera. Monterronen,
arratsaldeko 6etatik 8etara.

**ASTE SANTUKO I.go TENIS
TXAPELKETAREN
HASIERA**

Apirilaren 5etik 10era. Musako-
lako barruko kantuan eta
kanpoko kantuan. Txapelke-
tako ordutegia apuntatzen
diren talde kopuruaren ara-
berakoa izango da, baina
goizez antolatzen saiatuko
dira.

**ASTE SANTUKO I.go BASKET
TXAPELKETAREN
HASIERA**

Iturripeko Kiroldegian, kanasta
lateraletan. Apirilaren 5etik
10era. Txapelketaren ordu-
tegia apuntatzen diren talde
kopuruaren arabekoa
izango da, baina goizez an-
tolatzen saiatuko dira.

KIROL-JOKU IKASTAROA

Elgetan. Apirilaren 19 eta
21ean, arratsaldeko 6etatik
8.30etara hezkuntza fi-
sikoko irakasleentzat.
Apirilaren 23 eta 30ean,
goizeko 10etatik 12.30etara
entrenatzaileentzat. Prezioa:
irakasleek 1.500 PTA,
entrenatzaileek 500 PTA.

6 ASTEAZKENA**"SALSA" IKASTAROA**

Arrasaten, maiatzaren 3.
asteen. 3 txanda: Bat goizez
(11etatik 12.30etara) eta beste
biak arratsaldez (6.30etan
8etara eta 8etatik 9.30etara).
Prezioa: 2.500 PTA bazkide-
entzat eta 3.500 PTA bazkide
ez direnentzat.

MENDI IRTEERA

Besaide M.Eak antolatuta.
Irteera, apirilaren 17an,
goizeko 7.00etan Garibai-
tik. Izenematea, apirilaren
12, 13 eta 14an, 7.30etatik
8.30etara. Besaideren egoi-
tzan, Garibai, 3. Tlf:
798474.

7 OSTEGUNA**KUADRILEN ARTEKO
BATZAR OROKORRA**

Gaia: San Juan jaiak. Monterro-
nen, apirilaren 7an, arratsaldeko
7etan.

**ARRASATETIK
IRRATSAIOA**

**Apirilaren 9an. Goizeko
11.30etatik 12.30etara.
Herri Irratian. Hizlari:
Xabier Zubizarreta, Jose
Mari Eraña, Mikel Leza-
miz eta Inazio Lakuntza.**

**"DO DIA DA GALIZA". 3. URTEURRENA**

Galiziarrek hainbat ospakizun antolatu dituzte. Ekintzak,
San Andres auzoko Gudarien plazan ospatuko dira.
Apirilaren 8an arratsaldeko 6etan, kanpai errepikaz
jaien hasiera eta gauean "Sonora" orestrarekin berbena.
Apirilaren 9an, goizeko 10etan Eibarko Kultur Etxe
Galegoko gaitero eta dantzariekin kalejira eguerdiko
12etan Asunciongo Amaren elizan meza, ordu 1ean
dantza galegoak eta gauez "Israel" orkestrarekin berbe-
na. Apirilaren 10etan, goizeko 11etan folklore dantzak
gaitero eta dantzari taldeekin eta ondoren Maria Monta-
na eta bere showa. Arratsaldez jaiak bukaera emango
zaie.

“1993an Deba Garaiko zenbait udal (Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñati) helburu batekin elkartu ziren: kirol arloan euskararen normalizazioa bultzatzeko. Horrela jaio zen kirola euskaraz proiektua.

Eman zituzten lehen pausoak izan ziren: bailarako herrietan egiten ziren kirolen berri zehatza jaso eta kirol arloko euskarazko materialen bilketa. Bi ondorio atera zituzten: Deba Garaian entrenatzaile euskaldunen beharra zutela eta oso material gutxi zegoela euskaraz kirol arloan. Bi ondorio horietan oinarrituta prestatu zuten 1993ko plangintza”.

EUSKARAREN BERRIPAPERA

“Euskal Herriko 34. Txirrindulari Itzuliaren hasiera Arrasaten ospatuko da aurten. Hori dela eta, ziklismo leintzarrari buruz egin berria dugun honako aipamen historiko laburra aurkeztu nahi dizuet.

Argitalpen honen bidez, gure errekonozimendu eta begirunea luzatu nahi izan diegu ziklismoaren praktikan aritu izan ziren zenbait leintzarrei”

“Txirrindularitza Leintzarraren aipamen laburra” liburuxkan



“Pertsonalki mingarria gertatzen zait lana daukagunok erabat lanpetuta gaudela ikustea, eta bitartean, gure alboan gu bezain gai edo gu baino hobekak direnak ikustea, denbora emate aldera ikastaroak egin eta egin ibiltzera behartuta. Nire ustez, lana ondasun urria bada, banatu egin behar da, diru-sarrerak ere lanorduetara egokituz. Gerta daiteke lan batzuk banatzen zailak izatea, erantzukizuna pertsona bakarraren gain egotearen premia dela eta, baina ziur naiz lan horiek gutxiengoak direla.”

Jose Manuel Corcuera



Zer moduz iaz Lizarra elkartean eta aurtengorako zer asmo?

Lizarra elkartearen iazko balantzea orokorrean ona izan zela esan dezakegu. Aurreko urteetan bezala, toxikomanoei laguntza ematen ahalegindu gara. Baina aurten beharbada somatu dugu zelabaiteko kompromezu falta familiartekoen partetik. Jakingo duzuen bezala, Lizarra elkarteak “Gizakia Helburu” izeneko proiektuaren aldeko apostua egiten jarraitzen du. Gure ustez sendatze prozesuan gaisoak familiaren laguntza eduki behar du, beraz, familiako partaideek ere konpromezuak hartu behar dituzte. Aurten ez dakitu zergatik, beharbada krisiaren eraginez edo, baina lehen esan bezala antezman dugu familiartekoen ahalegina ez dela nahikoa izan.

Bestalde aurten gartzelako arazoari heldu diegu. Drogazale batzuk gartzeletan daude eta gure asmoa handik atera eta “Gizakia Helburu” proiektuan sartzea da. Aurten puntu hori ahal dugun neurrian jorratzen ahaleginduko gara. Era berean HIESa dutenekin ere lanean hasi gara. Kasu honetan gure asmoa, gaisoari eta familiartekoei laguntza morala ematea da. Honetaz gain, prebentzioan lan egingo dugu, hitzaldi eta ekintza desberdinak antolatuz. Hauetariko batzuri apirilean emango diegu hasiera.

Bukatzeo gogorazazi nahiko nuke, Lizarra elkarteko atea edozein droga moietarekin arazoak dituztenentzat daudela zabalik. Orain arte, batez ere heroinazaleekin egin dugu lan baina aurrerantzean seguruenik, beste droga modernoagoekin arazoak dituztenekin egin beharko dugu lan.



Jose Miguel Vega
Lizarra elkarteko partaidea

Alkoholarekin arazoak daukazazu?
Agian,
“Alkoholiko Anonimoek” lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

Iturriotz, 7
arrasate
tfnoa: 79 04 67

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

comercial
san juan

hikein

MARKO-JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

EAJren mitina Eskoriatzan

EAJk mitina eskaini zuen Eskoriatzan joan den larunbatean. 300 bat lagun bildu ziren Frontoian, eta hizlariak, Xabier Arzalluz, Joseba Egibar eta Josu Jon Imaz izan ziren, azken hau, Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan EAJren zerrendaburua izango dena. Hauteskunde horietako aurrekanpainaren hasieratzat har daiteke Eskoriatzako mitina. Xabier Arzalluzen hitzek zalaparta sortu dute komunikabideetan, PSOEk EAJ, ETA baino gehiago gorrotatzen duela esan baitzuen. Ekitaldi politikoa herri-bazkari batekin amaitu zen.

Bi istripu larri Arrasaten...

Bi istripu larri gertatu ziren joan den asteko ostegunean Arrasaten. Lehen istripuan auto batek Eskoriatzako txirrindulari bat harrapatu zuen Araba etorbidean. Zauritua, Rafael M.A. 17 urtekoa, larri eroan zuten ospitalera. Berandua-go, Roneoko zubi metalikoaren parean (oso puntu arriskutsua oinez gurutza-



Euskadiko Itzulirako berotzen

Itzuliaren hasieraren aurrerapen gisa, antzezlan bat eta txirrindulari martxa bat izan genituen asteburuan. Larunbatean Geroa taldeak "Rezagados" obra eskaini zuen, txirrindularitzaren inguruko antzezlan bat. Igandean, aldiz, eskoletako txirrindulari martxa egon zen. Printzipioz gaztetxoentzako ekitaldia zen arren, "ez hain gazteak" ere elkartu ziren. Ordu-tegi aldaketagatik, despisteren bat ere izan zen, baina azkenean, Portaloitik kiroldegira irten eta handik Garagartzara abiatu ziren, eta eguerdirako herrira bueltatu ziren.

tzeko), Arrasateko 60 urteko andre bat harrapatu zuen beste auto batek. Evarista E.F. oso larri ebakuatu zuen Gurutze Gorriak.

...Eta larriagoa Eskoriatzan

Gasteizko txirrindulari bat hil egin zen igandean Eskoriatzan izandako trafikoko istripuan. Igande

eguerdian Ford Fiesta batek harrapatu egin zuen txirrindularia, Fermin V.L. 28 urtekoa, eta Arrasateko ospitalera eroan zuten arren, hil egin zen.

Intsumisoen epaiketak

Asteartean epaitu dute Donostian Josu Galdos intsumiso arrasatearra. Lekuko gisa, Esther Larra-

ñaga EAko parlamentaria aritu zen bere alde, eta beste hainbat lagun elkartzatuna ere izan zuen. Bitartean, Andoni Urzelai atxabalta-rrak (ATBko lankideak) bere sententzia ezagutu du, hiru hilabetekoa, eta orain, fiskalaren errekurtso posiblearen zain dago.

Plenoko gaiak

Joan den ostiraleko plenoan, Uharkapeko mendi-magalaren segurtasun-orma egiteko proiektua lehiaketa publikora ateratzea erabaki zuen Korporazioak aho batez. 300 milioi PTatik gorako proiektu bat da hau, egin behar diren obren bigarren fasea. Plenoan onartutako beste gai batzuk udal tasak ordaintzeko eskaintzen diren dirulaguntzetarako araudia eta etxez-etxeko laguntza zerbitzua erregulatzeko beste araudi bat izan ziren. Iturbideko zaharren egoitzako tarifak markatzeko beharrezkoa den gastu zehaztapena ere onartu zen plenoan: pertsona bakoitzeko kosto arrunta hileko 125.000 PTAKoa dela erabaki du udalak; 225.000 PTAKoa ezinduen kasuan.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Arrasateko Aita Menni ospitalean bildu zen IGP bateko irudia.

Maltzaga-Urbinako IGPen bilerak amaitu dira

Joan den ostiralean amaitu zen Gasteizen Interbentzio Gune Partehartzaileen (IGP) prozesua, Maltzaga-Urbina autopista proiektua eztabaidatzeko antolatu den kontsulta sistema. 14 gune desberdin bildu dira urtariletik hona, Arrasaten hasi, eta Donostian, Elgoibarren eta Gasteizen segituta.

25 laguneko lan-taldeak izan dira IGPak, herritarren artean zozketaz hautatutakoak. Autopistaren inguruan iritzi desberdinak dituzten talde desberdinen txostenak ezagutu dituzte hurbiletik, LES-Gizarteaz soziologia gabinetearen gidaritzapean. "Jendearen kolaborazioa oso baikorra izan da, ondo erantzun dute, eta Guneetan inork ez ditu eztabaidak utzi", adierazi digu Gizarteazeko Hans Harms-ek. Bera eta Luxio Ugarte izan dira prozesua antolatu dutenak, administrazioaren enkarguz.

Orain, Gizarteazek bildutako datu guztiak prozesatuko ditu, eta txosten bat erredaktatuko du. Emaidza hori, IGP bakoitzean

aukeratutako bi ordezkari pasatuko zaie. Ordezkar horiek guztiak elkartu egingo dira apiril amaieran, jarraipen batzorde batean, Gizarteaz analiziarekin ados dauden erabakitzeke, eta gehikuntza edo zuzenketa proposatzeko. Txostena zuzendu ondoren, administrazioari aurkeztuko zaio maiatzean egingo den ekitaldi publiko batean.

IGPen emaitza hori ez da binkulantea izango administrazioarentzat, baina kontuan izango duela uste dute soziologoek.

Bitartean, Elgoibarko Gazte Asanbladak IGPen prozesua baliogabetzeko eskatu dio Arartekoari. Gazte Asanbladak txosten bat aurkeztu zuen IGPetan azaltzeko, baina gero ez zen eztabaida-programan sartu, "eskuetara iritsi ez zitzaigulako", Gizarteazeko Luxio Ugarteren esanetan. Gero, IGPen Elgoibarko hiru bileratan hitz egiteko aukera izan zuen Asanblada horrek, baina hala ere partehartzaileen berdintasuna ez dela bermatu uste du Elgoibarko talde horrek.

Babes-etxea

Arrasatek babes-etxe bat izango du, azken plenoan Korporazioak aho batez onartu eta gero. Arrasateko emakume taldeen aspaldiko eskaera da hau, eta udalak azkenean prestatu egingo du babesetxe hori, baina ez da emakumezkoentzako izango soilik, azaltzen diren premiazko kasuetarako baizik. Hala ere, oraindik ez dago pisurik prest babes-etxe gisa funtzionatzeko.

Kutxako biltzarrerako ordezkaria

Gipuzkoa-Donostia Kutxak izango duen hurrengo batzar nagusira Juan Carlos Garitano EAJko zinegotzia joango da Arrasateko udalaren ordezkari gisa, joan den ostiraleko plenoan erabaki zenez. Herri Batasunak Hazienda batzordeko burua, Ino Galparsoro, proposatu zuen, baina bozketan Galparsorok 9 boto izan zituen (HB eta EArenak), eta Garitanok 10 (EAJ eta PSE-EErenak). Iazko batzarrean ere Garitano izan zen ordezkari arrasatearra.

AED eta muralak

AEDk baimena lortu du laster hasiko duen mural ikastaroan herriko zenbait horma pintatzeko. Hala ere, baimena ez zaio nahi zuten orma guztietarako eman, eta baldintza batzuk ere jarri zaizkie AEDkoei.

LODITASUNA, LIPOESKULTURA, LIPOSUKZIOA.

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aukerak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerrias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



Jauregibarra (edo Jaiberri) baserrian familia bat bizi da.

Garagartzako bi baserri subastara atera ditu udalak

Jabetza munizipalekoak diren Garagartzako auzoko terreno batzuk subasta edo enkante publikora aterako ditu udalak, terreno horiek inorenganatzeko, hau da, saltzeko. Jauregibarra baserria (Jaiberri izenez ezagunagoa) eta Tanpoko baserria, dagozkien lurrekin, dira enkantera aterakodirenak.

Printzipioz, 43 milioi PTA-tan finkatu du udalak lur-zoru hauen balioa. Jauregibarrin jendea bizi da, eta baserriarekin batera, bi lur-sail doaz, Etxaurrekoa (2.700 metro karratu) eta Etxeazpikoa (8.100 metro). Tanpoko baserria hondarretan dago, baina honek ere lurra dauka. Jauregibarrin bizi den familiak erosketarako preferentzia edukitzea nahiko luke, eta helburu horrekin kontaktuan jarri dira udalarekin. Bestetik, inmobiliaria bat ere interesatuta ei dago erosketan, Garagartzan etxebizitza bakarreko etxe talde bat egiteko asmoa daukatelako.

Baserri eta terreno hauek San Frantzisko

Xabier Ikastolarenak ziren lehen.

Ondasun hauek baserri-eskola bat egiteko asmoz erosi zituen ikastolak, sasoi ekonomiko hobeetan. Gero, ostera, udalari utzi zizkion ikastolak, Ferixalekuko ikastetxearen zesoagatik trukean. Gaur egunean, Ferixalekua erreformatzen ari dira (nahiz eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak ez duen oraindik eraikuntzaren desfektazioa eskaini), datorren ikasturtean ikastolaren irakaskuntza ertaineko lerro berriak bertan kokatzeko.

Udalak ikastolari erositakoen artean beste baserri bat ere badago, Artia, baina hori ez dute oraingoz subastara atera. Lurrak inorenganatzeko erabakia hirigintza sailetik iritsi zen plenora, eta zinegotzi guztiek aho batez onartu zuten, eztabaidarik gertatu barik. Zortzi eguneko agerpen publikoan jarriko ditu udalak subastarako baldintzak, eta dagozkien buletinetan ere argitaratuko da.

Atzerapena fatxaden berriztapenean

Udalak erantzukizunak eskatu dizkio Boisa enpresa eraikitzaileari, alde zaharretako fatxadak berritzeko enkargatu zitzaion lanaren dokumentazio egokirik ez omen duelako aurkeztu. Boisak dokumentazioa behar bezala betetzen ez badu, beste kontratista bati enkargatuko zaio fatxaden zaharberritzea. Fatxadak berritzeko plangintza Mankomunitatearen barnean funtzionatzen duen Suradesa enpresak bultzatzen du, eta Arrasateko erdiguneko etxeen itxura hobetzea dauka helburutzat. Iaz berriro zituzten zenbait fatxada, baina orain 2. faseari ekin behar zaio, eta momentuz gelditu dago prozesua.

Multimedia proiektuak

Deba Garaiko Mankomunitateak multimedia proiektuak garatzeko prestatu duen beka-sistema aurkeztuko du datorren astean. Garapen azkarra bizi duen informatikako esparru berri bat da multimedia, eta "tren" hori ez galtzeko atera dituzte beka hauek. Proiektu hauen garapenerako komenioa sinatuko dute Mankomunitateak eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak. Datorren astea aurkezpenera Gipuzkoako ekonomia diputatua, Guillermo Etxenike, etorriko da.


UDALAITZ TABERNA

Txirrindulari guztiekin

Erdiko kale, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 20 61



Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



**1. etapa. Arrasate - Arrasate (117 km).
Apirilak 4, astelehena**

**2. etapa. Arrasate - Gasteiz (185 km).
Apirilak 5, asteartea**

Km	(40 km/o) Ordua	(42 km/o) Ordua	Ibilbidea
0	14.00	14.00	Arrasate
3,8	14.06	14.05	Aretxabaleta
10,1	14.15	14.14	Arrasate
14,5	14.22	14.21	San Prudentzio
17	14.26	14.24	Zubillaga
20	14.30	14.28	Oñati
30	14.45	14.43	Udanako gaina (3. kat.)
35	14.52	14.50	Legazpi (tarteko helmuga)
41,5	15.02	14.59	Deskarga
45,4	15.08	15.05	Antzuola
48,5	15.13	15.09	Bergara
54,5	15.22	15.18	San Prudentzio
58,5	15.28	15.24	Arrasate (tarteko helmuga)
62,5	15.34	15.29	Aretxabaleta
68,8	15.43	15.38	Arrasate
73,2	15.50	15.45	San Prudentzio
75,7	15.54	15.48	Zubillaga
78,7	15.58	15.52	Oñati
88,7	16.13	16.07	Udanako gaina (3. kat.)
93,7	16.21	16.14	Legazpi (tarteko helmuga)
100,2	16.30	16.23	Deskarga
104,2	16.36	16.29	Antzuola
107,2	16.41	16.33	Bergara
113,2	16.50	16.42	San Prudentzio
117	16.56	16.47	Arrasate (helmuga)

Km	(40 km/o) Ordua	Ibilbidea
0	12.00	Arrasate
1,5	12.02	Eroski
4	12.06	Saihesbidea
5,5	12.09	Mugarri
8,1	12.12	Arrasate
12,6	12.19	Kanpazar (3. kat.)
19	12.29	Elorrio
44	13.06	Urkiola (1. kat.)
100	14.30	Azazeta (3. kat.)
122	15.03	Muelako gaina (3. kat.)
169	16.14	Gasteizko gaina (3. kat.)
185	16.38	Gasteiz (helmuga)



Ediziorik onena, irteerarik aproposena

Hogei talde eta 160 txirrindulari. Horien artean, munduko elitea, idolo ezagunenak. Miguel Indurainen zalantza ia argituta dago, eguraldia oso txarrera joateak bakarrik ebitatuko liguke txapeldun nafarraren bisita. Arrasate mundu mailako txirrindularitzaren topagune izango da.

Azken urteetan nazioarteko egutegiko frogarik garrantzitsuenetarikoa bilakatu da Euskadiko Itzulia. Aurten goan, antolatzaileen iritziz, aurreko urteetako maila gainditu egingo da, eta sekula ez bezalako tropel bikaina bilduko da Arrasaten, Itzulia korritzeko.

Azken bi urteetako txapelduna, Tony Rominger,

Claudio Chiapucci, Piotr Ugrumov, Franco Chioccioli, Viatxeslav Ekimov, Andrew Hampsten, Lance Armstrong munduko txapelduna, eta munduko txirrindulari onena, Miguel Indurain. Froga aurkeztu zutenean, Indurainen zalantza airean zegoen, eta duda-muda guztiak erabat argitzeke dauden arren, Banesto taldeak zortzi karreris-


tako zerrenda igorri dio antolakuntzari, eta hantxe ageri da Indurain ere.

ROMINGER VERSUS INDURAIN


Eguraldi txarra izan daiteke Miguel Induraini atzera eragin diezaiokeen faktore bakarra. Nolanahi ere, egurats hotz eta bustian guztiak atzean uzteko gai dela eraku-




1. etapa. Apirilak 4, astelehena. Arrasate - Arrasate. 117 km




2. etapa. Apirilak 5, asteartea. Arrasate - Gasteiz. 185 km



3. etapa. Apirilak 5, asteazkena. Gasteiz - Balmaseda. 209,5 km




4. etapa. Apirilak 7, osteguna. Balmaseda - Ibañeta. 228 km



5. etapa. Apirilak 8, ostirala.

1. sektorea. Bera - Azpeitia. 121 km

2. sektorea (erlojupekoa). Azpeitia - Elosiaga. 8,3 km



tsi zuen iazko Giroan. Horrez gain, beste faktore garrantzitsu batek jo dezake Indurainen presentziaren alde: Tourra baino lehenago Rominger eta bera aurrez aurre egoteko azken aukera serioa da. Jakinaenez, nafarra Girora joango da eta suitzarra Espainiako Vueltara. Aurten Paris-Nizan elkartu dira soilik, eta Romingerrek ederto irabazi zuen eta, Indurainek lasai hartu zuen, lehiatu barik.

Bi faborito nagusi horiek albo batera utzita, badago irabazteko moduan egon litezkeen beste karrerista mordobat ere. Entzutetsuenen artean falta den bakanetakoa Gianni Bugno italiarra da. Lider nagusiez gain, sorpresa eman dezaketenak ere hor daude; adibidez, Stefano Della Santa italiarra Setmana Catalana irabazi berri duena, edo Milano-San Remoko azken garailea, Giorgio Furlan, Gewiss taldekoa.


**EUSKALDUNEN
AUKERAK**

Euskadiko Itzulia korritzea txirrindulariei beraiei interesatzen zaien gauza da. "Prestigioko froga da, eta FICP puntu asko daukanez, jendeari FICP puntuak irabaztea komeni zaio, urtearen amaieran puntuen arabera hurrengo fitxa negoziatzeko", esplikatu zigun Enrique Alonso txirrindulari arrasatearrak. Dagoeneko lehiaketak utzi ditu Alonsok, baina horrek ez du esan nahi bizikleten mundutik urrundu denik, izan ere, Arrasateko irteerako antolaketa taldeko partaide aktiboenetakoa izan da eta.

Euskal txirrindularien artean, Indurain ez bada, aukera gutxitxoago: Mikel Zarrabeitia (Banesto) aipatzen dute kiniela batzuetan, eta inor gutxi gehiago. Euskadi talde berriari jarraitu beharko diogu bereziki, Txomin Perure-

Palmaresa

1924	Francis Pellisier
1925	August Verdyck
1926	Nicolas Franz
1927	Victor Fontan
1928	Maurice Dewaule
1929	Maurice Dewaule
1930	Mariano Cañardo
1935	Gino Bartali
1969	Jacques Anquetil
1970	Luis Pedro Santamarina
1971	Luis Ocaña
1972	J.A. Gonzalez Linares
1973	Luis Ocaña
1974	Miguel Mari Lasa
1975	J.A. Gonzalez Linares
1976	Gian Battista Baronchelli
1977	J.A. Gonzalez Linares
1978	J.A. Gonzalez Linares
1979	Giovanni Battaglin
1980	Alberto Fernandez
1981	Silvano Contini
1982	Jose Luis Laguia
1983	Julian Gorospe
1984	Sean Kelly
1985	Pello Ruiz Cabestany
1986	Sean Kelly
1987	Sean Kelly
1988	Eric Breukink
1989	Stephen Roche
1990	Julian Gorospe
1991	Claudio Chiapucci
1992	Tony Rominger
1993	Tony Rominger
1994	?



Atarrabiako txapeldunak irabaziko ote du?

naren ekipoak bere publikoaren aurrean demonstratu beharko baitu bere izateko funtsa. Bailarako afizioak ez du ordezkaritza larregi aurrean, baina hortxe izango da Asier Guenetxea Artiach taldeko atxabaltarra.

IBILBIDE SELEKTIBOA

IBILBIDEARI dagokionez, Arrasate-Arrasate etapa lasai samarra izango dela susma daiteke. Hala ere, duen laburtasunagatik, abidadura bizian korrituko dutela pentsa daiteke, eta hortik sorpresaren bat etor liteke. Lehen etapan gure

eskualdetik zehar antolatutako zirkuitu bati bi bira eman go zaizkio. Jai eguna izanik, eta Udanatik birritan pasatuko direna kontuan izanda, pentsatzea da jendetza handia bilduko dela errepide bazezteretan. Zaletuek bi aldiz ikusi ahal izango dituzte txirrindulariak, gehiago oraindik Arrasaten geratzen badira.

Lehen eguneko aperitiboaren ostean, Arrasate-Gasteiz etapan bost mendate gainditu beharko dituzte, tartean Kanpazar, hasi bezain laster, Urkiola 1. mailakoa eta Gasteizko gaina, helmugatik 17

kilometrotara. Hirugarren etapen beste sei mendate, eta ondoren osteguneko etapa: "erregina", esan ohi den bezala, Ibar-dingo gain klasikoan amaituko dena. Tartean Jaizkibel gainditu beharko dute, eta hortaz, etapa honek udako Donostiako Klasiko famatuaren antza handia dauka. Azken egunean, "tramitezko" lehen sektorearen ostean, erlojupeko batek erabakiko du Itzulia. 8,3 km-ko ibilbide laburra, baina erdia aldatz gora, Azpeitiko Elosiaga gainera. Final polita, irteera indartsu eta partaidetza nabarmeneko froga batentzat.

Taldeak eta bakoitzeko txirrindulari entzutetsuenak:

Mapei-CLAS: Tony Rominger, Fede Etxabe, Iñaki Gaston, Stefano Della Santa.

ONCE: Eric Breukink, Johan Bruyneel, Neil Stephens.

BG-MG Maglificio: Franco Vona, Pascal Richard, Fabio Baldato.

Banesto: Miguel Indurain, Jean François Bernard, Julian Gorospe, Aitor Garmendia, Mikel Zarrabeitia.

Carrera Jeans - Tassoni: Claudio Chiapucci, Vladimir Pulnikov, Leonardo Sierra.

Motorola: Lance Armstrong, Andrew Hampsten, Raul Alcalá, Alvaro Mejía.

WorldPerfect: Viatxeslav Ekimov, Franz Maassen.

TVM: Gert-Jan Theunisse.

Telekom: Olaf Ludwig, Udo Bolts, Uwe Raab.

Gewiss-Ballan: Giorgio Furlan, Piotr Ugrumov, Bjarne Rijs.

GAN: Chris Boardman, Eric Boyer.

Festina-Lotus: Luc Leblanc, Pascal Lino, Richard Virenque.

Lotto: Luc Roosen.

Mercatone Uno: Franco Chioccioli, Massimiliano Lelli.

Jolly Componibili: Zenon Jaskula, Dmitri Konixev.



Keleme: Laudelino Cubino.

Artiach: Asier Guenetxea, Alberto Camargo.

Euskadi: Pello Ruiz Cabestany, Javier Murgialdai, Ruben Gorospe.

Deportpublic: Luis Perez, Antonio Miguel Diaz.

Brescialat: Flavio Giupponi, Eric Vanderaerden, Luca Gelfi, Bruno Leali.



ENRIQUE ALONSO *

Txirrindularitza gogorra dela

Berriro ere, kirolzaleentzat interesgarriena den kirol-ikuskezuna bizi izateko prestatzen ari da Euskadi: Euskadiko Itzulirako prestatzen.

Txirrindularitzako proba honen historia denok ezagutzen dugu, partaidetza, ikusgarritasun eta palmaesari dagokionez; aurtengo edizioak txirrinuzalearentzat eta Arrasateko herriarentzat oso berezia den zerbait du, izan ere bertatik pasako baita lehen etapa.

Gaur, hala ere, txirrindularia pertsona bezala hartu nahi nuke gaitzat.

Txirrindularitza bizi izan ez duten pertsonen idatzitako artikuluguztietan bereziki azpimarratu ohi da txirrindularitza kirol gogorra dela, txirrindulariak burdinazko eramana daukala, kirolik sakrifikatu eta gogorrena dela esaten da, azken finean, ez dela pertsonaren-

tzako bizimodua.


Txirrindulari gisa egitenituen urteetan, horrelakoak irakurtzean harro sentitzen nintzen, baina ez nengoen guztiz ados baieztapen horiekin; une hauetan, txirrindularitza profesionaletik aldentuta eta neure ustez behintzat bizitzaren ikuspegi zabalagoa dudala, horrelako ko-mentario arraroekin erabat desados nagoela esan behar dut.

Bizimodua irabaztea beti kostatzen da, etengabeko erronka da; txirrindularitzan ere, egunean egunean hobetzeko ahallegina egiten du txirrindulari bakoitzak, ahalik eta ondoen egiten du, baina hori ez dá lan handia beretzat, jolasa balitz bezala hartzen du eta; gustatu egiten zaio eta horixe da txikitatik egin nahi izan duena, eta gainera, zenbat eta hobeto egin, orduan eta zaletuen aldetik zein ekonomikoki sari gehiago jasotzen du.

Txirrindularitzak, nire ustez, ez du goi mailako kompetizioko gainerako kirolekin konparatuz ezberdintasunik; kirol bakoitzak bere filosofia izaten du, baina edozein kirolari, berak nahi duela kirolari eta egiten duena gustatu egiten zaio beti, eta ez da hala gertatzen bizitzako beste lanbide batzuetan.

PROFESIONAL OHIA

Erredakzioan itzulia



JOSEBA LEZETA *

Bizitza bezalakoxea

Kolorea, abiadura, buruberotze galantak, nekea, itxurakeria, lo luzeak egiten dituzten txirrindularien ondoan oherik zapaldu ere egiten ez dutenak, bozina hotsak, publizitatea, propaganda, pertsonak, karrerak sasoi baten geratzen zituzten manifestaldi eta protestak, eguzkia, euria, elurra, kale estuak, bihurtune itxiak, bide zabalak, korbatadun gizon dotoreak, buzodun gizon dotoreagoak, harrapatu ezinako aukerak bezain bizkor pasatzen den pelotoia, "emakume-objektuak", maitasun gabeko lore sortak, musuak, asfaltuaren urratuak, kotxe eta moto distiratsuak, isilean egindako lan ugari, goxokiak, boligrafoak, banderín gorriak, banderín berdeak, podium gaineko txaloak, kotxe eskobako burumakurrak, aerodinamika, bastoedun erruberak, pintxazoak, odola, txanpaina, telebis-

ta irudien eta egunkarierako literatura beroa, sailkapen hotzak... Bizitza bezalakoxea dugu txirrindularitza, eta baita Euskal Herriko Itzulia ere. Beste kirol batzu ez bezala, ziklismoa herriz herri dabil, guztion bidetan, sekula ez estadio edo polikiroldegi itxi batean. Beharbada horregatik karreerek ez dute inon sustrairik egiten, baina leku denetan errotuta daude. Apirilaren 4ean eta 5ean Arrasate pasatuko da, guzti hau ikusi ahal izango da.

**DVko TXIRRINDULARITZAN
ADITUA**

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

AREITIO
Zarugalde, 5
Tfnoa: 79 38 38

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23



Jose Aranzabal

Iturriotz, 15 Tfnoa: 79 15 16



Markarik onenak:

FAGOR-ASPES
SONY
THOMPSON
PHILIPHS
AEG
BOSCH

Sukalde-altzariak



ELEKTRAGAILUAK
KAMARAK
BIDEO
HI-FI
TB



AKOBEren garantia eta zerbitzuaz

S. Andres auzoa. Tfnoa: 79 18 92.

Jose Aranzabal

Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



Ekuadorra gaindituta

Zaldibarko bigarren faseko ekuadorra gainditu dugu, eta orain arte inolako gertakaririk izan ez den arren, azken jardunaldi honetan inpu gnazio bat izan da. Aste Santua gainean daukagula eta, denbora gutxirekin egin behar izan dugu aste honetako aldizkaria, eta horregatik ez dakigu zein izan den inpu gnazio horren gaineko erabakia, baina antolatzaile taldetik adierazi digutenez, ez dirudi

inpu gnazioak aurrera egingo duenik.

Sailkapenei dagokienez, talde bakoitzeko liderra bakarrik doa, baina ondoren tropeltxo dago segika. Seguru aski, sailkapenak ez dira azken unera arte argituko. Uribe Auzoa txapelketari dagokionez, aurrera doa normaltasun osoz, eta goleada handiekin ere bai. Orain atsedena tokatzen zaie bi txapelketei, oporrak direla eta.



**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Zaldibarko Txapelketa

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
PEPELUS	4	4	0	0	19	6	8
LOS HEREDIA	4	3	0	1	18	14	6
ARLUTZ	4	2	1	1	15	13	5
FRANCISCANERR	4	2	0	2	22	17	4
REVOLUTION ROCK	4	2	0	2	16	22	4
POTROAK LORAT.	4	0	3	1	12	13	3
NABARROS	4	0	1	3	12	19	1
ZOTZ	4	0	1	3	14	24	1

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
MIKELOS	4	3	1	0	18	12	7
ZULUS	4	3	0	1	19	10	6
FOSFOROS	4	3	0	1	22	15	6
ANBOTOSTE KT	4	2	0	2	11	14	4
BUKANAK	4	2	0	2	15	15	4
UGLYS TXINATO	4	1	1	2	22	21	3
JEY JULIWER	4	0	1	3	7	13	1
SOKOAKOAK	4	0	1	3	8	22	1

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ARGI IBILI	4	4	0	0	29	10	8
IRATI STS	4	3	0	1	18	13	6
SUM. UGARTE	4	2	0	2	25	14	4
MOTZ	4	2	0	2	18	17	4
TOVARITX	4	2	0	2	16	19	4
ARR. KIROLAK	4	2	0	2	16	16	4
KAKAJAURI	4	0	1	3	9	23	1
TRONKOTEAK	4	0	1	3	10	29	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
TRIKITI	4	3	1	0	18	8	7
ZULOAK	4	3	1	0	12	9	7
CARBUROS	4	2	2	0	14	8	6
LENITZ GARAGAR.	4	2	0	2	17	10	4
DANOK LAGUN	4	2	0	2	12	14	4
TUTTIFRUTI	4	1	1	2	10	12	3
ARR. KRISTALDEGIA	4	0	1	3	12	23	1
AC SURCOS	4	0	0	4	13	24	0

Uribe auzoa Txapelketa

A taldea

Borrokn Roll	6
Semen Up	6
Corinto Taberna	6
Lo + X	4
Ola Tailerrak	4
Kabiru	2
Elisabeth	2
Lore Gazteak	0
Trotabares	0
Altza Porru	0
No Comment	0

B taldea

Solano 7 Mares	5
Bodisca	5
Nuevo Taberna	4
Ganbelas	3
Sorgol	3
Berango Sukald.	3
Lokis	2
Yomai	2
Bayern Lenitz	2
Ke Oxtias	1
Atxanta ke te...	0

D taldea

Lautherbrunnen	6
Stockers	5
Equs	4
Hirei	4
Top Hits	3
Los Insociales	3
Belo eta Txapi	2
Ezkiñako Hontzak	2
Etxe Mobiliario	1
Mobil. Arenaza	0
Estrella Floja	0

E taldea

Txeenex	6
Los Dimy	6
Fancy Bois	4
Kirten Tropel	3
Los Dalton	3
Beti GazteJoma	2
Jo Ta Akabau	2
Excav. Lete	2
Los Garimbaz	2
Auf dem Koffer	0
Borrokn Prom.	0

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



ARGÍ PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**

Erakusketak berria:
Kanpatorpea, 2
(Parrokia ondoan)
ETORRI IKUSTERA!

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35



M

MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekarria
Arrisku gerentea

Boulevard, 11 5º-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

**Garaiko perretxikoak urte
guztian zehar!!**

**RUTH
GATZAGA**

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE



- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta



Asteburu honetan, gogoratu, ez dago futbitorik. Hurrengo asteburuan itzuliko da baloia kantxetara, apirilaren 9 eta 10ean. Ordurako, partidu hauek gomenda ditzakegu Zaldibarren: Los Heredia - Pepelus, Trikiti - Carbuos eta Zuloak - Lenitz Garagardotegia.

BELARRIRA

◆ **Goleada nabarmenak.** Zaldibarko txapelketan ez dago lehen fasean beste goleada eta tarte nabarmenik, logikoa den bezala, baina Iturripeko partiduetan gol zaparrada galantak gertatzen dira. Asteburu honetan, Lo + X-ek 14 gol sartu ditu, Equek 13, Kirten Tropelek 12 eta Txeyenexek beste 10.

◆ **Denak galdu edo irabazi.** Zaldibarren bi ekipok bakarrik lortu dute partidu guztiak irabaztea bigarren fase honetan: Pepelusek (sorpresatxoa) eta Argi Ibilik (beti favorito). Talde batek, ostera, ez du puntu bakarra ere eskuratu, AC Surcosek.

◆ **Ondo pasa oporrak.** Futbito txapelketek asteburu honetan jai hartzen duten bezala, ARRASATE PRESSEK ere datorren astean oporrak ditu. Beraz, gure hurrengo alea, apirilaren 15ean irtengo da, Zaldibarko bigarren faseko azken txanparen informazio guztiarekin.

EMAITZAK ZALDIBAR

A TALDEA

Los Heredia 6 - Franciscanerr 4
Potroak Lorategi 1 - Pepelus 2
Arlutz 6 - Zotz 4
Nabarros 4 - Revolution Rock 6

B TALDEA

Zulus 7 - Bukanak 1
Fosforos 2 - Jey Juliwer 1
Mikelos 4 - Anbotoste KT 1
Uglys Txinato 9 - Sokoakoak 2

C TALDEA

Argi Ibili 10 - Motz 2
Suministros Ugarte 8 - Kakajauri 2
Tovarixt 7 - Tronkoteak 4
Irati STS 6 - Arrasate Kirolak 2

D TALDEA

Trikiti 2 - Lenitz Garagardotegia 1
Zuloak 2 - Carbuos 2
Danok Lagun 6 - AC Surcos 3
Tuttifruiti 4 - Arrasate Kristaldegia 3

EMAITZAK URIBE AUZOA

A TALDEA

Ola Tailerrak 6 - Trotabares 3
Corinto Taberna 6 - Lore Gazteak 4
Semen Up 7 - No Comment 0
Borrokn Roll 8 - Elisabeth 1
Lo + X 14 - Altza Porru 2

B TALDEA

Atxanta ke te merece 4 - Bodisca 5
Berango Sukaldeak 2 - Ganbelas 2
Solano 7 Mares 5 - Yomai 3
Sorgol 4 - Bayern Lenitz 3
Nuevo Taberna 8 - Lokis 4

D TALDEA

Estrella Floja 2 - Equek 13
Lautherbrunnen 9 - Top Hits 4
Etxe Mobiliario 4 - Los Insociables 4
Ezkiñako Hontzak 3 - Stockers 3
Mobiliari Arenaza 2 - Hirei 4

E TALDEA

Fancy Bois 0 - Los Dimy 4
Jo Ta Akabau 5 - Los Dalton 3
Kirten Tropel 12 - Borroch Promesas 0
Los Garimbas 1 - Txeyenex 10
Excavaciones Lete 5 - Auf dem Koffer 2

SEAT | **Udalaitz, S. A.**

Audi! **2. Eskuko autoak**

R-19 TXE **BI-6422-AX**
Ibiza **BI-5590-BB**
GOLF GTI **NA-7720-T**
Ibiza XSI **GC-9968-AK**

Musakola auzoa, z/g
Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25

Deba Garaia Inmobiliaria



Inmueble eta finantza agentzia

Maalako Arrabala, 31 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 02

HURRENGO ASTEBURUAN

ZALDIBAR

Larunbata 9

Zaldibar

- 08.50 Uglys Txinato - Anbotoste KT
- 10.00 Arlutz - Revolution Rock
- 11.00 Suministros Ugarte - Motz
- 12.00 Zulus - Jey Juliwer
- 13.00 Potroak Lorategi - Franciscanerr
- 14.00 Argi Ibili - Kakajauri
- 15.00 Danok Lagun - Arrasate Kristaldegia
- 16.00 Los Heredia - Pepelus
- 17.00 Mikelos - Sokoakoak
- 18.00 Tuttifruiti - AC Surcos
- 19.00 Irati STS - Tronkoteak

Igandea 10

Zaldibar

- 08.50 Tovarixtx - Arrasate Kirolak
- 10.00 Trikiti - Carbueros
- 11.00 Zuloak - Lenitz Garagardotegia
- 12.00 Fosforos - Bukanak
- 13.00 Nabarros - Zotz

URIBE AUZOA


Larunbata 9

Iturripe A

- 09.00 Estrella Floja - Top Hits
- 10.00 Berango Sukaldeak - Yomai
- 11.00 Fancy Bois - Los Dalton
- 12.00 Semen Up - Elisabeth
- 13.00 Atxanta ke te merece - Ganbelas
- 15.00 Trotabares - Altza Porru
- 16.00 Kirten Tropel - Txeyenex
- 17.00 Etxe Mobilario - Stockers
- 18.00 Bodisca - Lokis
- 19.00 Corinto Taberna - No Comment

Iturripe B

- 09.00 Solano 7 Mares - Bayern Lenitz
- 10.00 Jo Ta Akabau - Borrock Promesas
- 11.00 Kabiru - Lo + X
- 12.00 Beti Gazte - Excavaciones Lete
- 13.00 Equis - Hirei
- 15.00 Lautherbrunnen - Los Insociales
- 16.00 Los Dimy - Auf dem Koffer
- 17.00 Ke Oxtias - Nuevo Taberna
- 18.00 Belo eta Txapi - Mobilario Arenaza
- 19.00 Ola Tailerrak - Lore Gazteak



Partidu bat inpugnatu dute D taldean

Joan den asteburuan jokaturako partidu baten emaitza inpugnatu egin du galdu zuen taldeak. Trikiti - Lenitz Garagardotegia izan da polemikako partidu hori. Trikitik 2-1 irabazi zuen, baina Lenitzek inpugnatu egin du, esanez Trikitirekin jokatu zuten bi jokalarik ez zeudela taldearen zerrendan. Beraz, arauz kanpoko alineazioa egon zela. Antolatzaile taldeak asteartean egindako bileran aztertu behar zuen inpugnazioa, baina lerro hauek idazteko orduan ez dakigu oraindik erabakiaren berri.

Nolanahi ere, antolakuntzatik adierazi digutenez, protestaren mo-

tibo izan diren bi jokalarietako baten kasuan ez dago zalantzarik, Trikitiren zerrenda ofizialean dago, eta beraz, zuzena da bere alineazioa. Beste jokalaria dagokionez, Lenitzek dioenez bi taldetan ei dauka izena emanda, Trikitin eta Arlutzen, eta beraz, hori da argitu beharreko puntua.

Inpugnazioak aurrera egingo balu, ondorio garrantzitsuak izango litzuke D taldean. Berdintasun handia dago sailkapenean, eta Lenitzi emateko Trikitiri puntuak kendu ezker, lehen postutik laugarrenera jaitsiko lirateke. Iazko txapelduna da Trikiti, eta kolpe handia litzateke hori.

I
R
T
A
B
E
R
N
A

**Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11**

Deba Garaia Inmobiliaria

**Inmueble eta finantza
agentzia**

Maalako Arrabala, 31 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 02

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**

77 08 15

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99



Antolatzaile taldekoak irteerako detaileak aztertzen Jose Luis Arrietarekin, Gipuzkoako Federazioko lehendakariarekin.

Antolakuntzako amets, ahalegin eta kezka

Euskadiko Itzulia Arrasateetik irtetzea ez da kasualitatearen emaitza. 1988tik egin zuen Arrasateko Txirrindulari Elkartek irteera antolatzeko eskaera, eta sei urte igaro behar izan dira amets hori betetzeko.

Azkenean, iaz Txirrindulari Elkartearen ardura hartu zuen lan-talde berriak egingo du posible ametsa, baina irteeraren aurkezpenean gogoratu zuten, "aurreko ekipari eman behar dizkiogu eskerrak, eurek hau egin zuten eta posible".

Froga eta taldeen aurkezpen ofiziala, etapa oso bat, eta bigarren etaparen irteera: guzti horren lekuko izango gara. Antolakuntza-lan handia ekarriko du horrek, eta lagun talde galanta arituko da lanean. Etapa egunean, 145 lagun arituko dira lanean: 10 udaltzain, 33 ertzain eta 102 boluntario, Arrasatekoak eta inguruetako txirrindulari elkartetakoak, ia etapa osoa Deba Garaian zehar korrituko denez. Bigarren egunean, karrera Kanpazartik Bizkaira abiatu aurretik, beste 47 lagunek lagunduko dute antolakuntzan.

Ahalegin honen emaitzak


onak izango direlakoan daukete denak. Arrasateko antolakuntza taldearen lana go-raipatu zuen Jose Luis Arrietak, Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioko lehendakariak, Donostian egin zen frogaren aurkezpen nagusian. "Aspalditik dakigu nola antolatzen dituzten frogak Arrasaten, bai San Juanetan eta bai bestela; talde berritua daukate, baina urtetan antolaketa lanetan sartutakoa", adierazi zuen Arrietak.

Diru aldetik ere ez da txantxetako zeregina izan irteera eskuratzea. 4,5 milioi PTAKo aurrekontuan, Arrasateko

udalak jarri du parterik handiena, 2,5 milioi, baina herriko hainbat enpresa eta etxek lagundu dute diruz edo materialez. Arrasateko Komunikabideek (ARKOk) ere kolaboratu dute, eta ARRASATE PRESSEKO ale berezi honetaz gain, karrera egunetan ATBn emanaldi bereziak egongo dira.

ESKULIBURU HISTORIKOA

Aurrekontuaren parte bat kultur ekitaldietara dedikatu da. Asteburuan argazki erakusketa ireki zen, eta "Geroa" taldeak antzezlan bat ere



eskaini zuen. Maila ludikoa-goan, ikastetxeetako umeen txirrindulari-martxa izan zen igandean, eta datorren asteburuan mahainguru bat ere badago. Karrerako egunetan, dantzaldiak ere antolatu dituzte (nazioarteko idoloek indigenekin liga dezaten edo?).

Beste detaile polit bat txirrindularitza leintzarraren historia eskuliburu batean biltzea izan da. Argazki, datu eta anekdota historikoak, bitxiak eta hunkigarriak, jakingarriak denak, biltzen dira hainbat txirrinuzalaren laguntzaz egin den liburuxka honetan. Bilketa lana Juanjo Iregiri eskertu behar zaio batipat, eskuliburuaren aurkezpenean antolatzaileek esan zutenaz, eta erredakzioa Kepa Oliden eta Adolfo Ruiz de Austriren esku egon da.

ERREPIDEAREN EGOERA

Arrasateko irteera, helmuga, podium eta karrerako zerbitzu guztiak, Abaroa egoitzan egongo dira. Komunikabide, karrerako epaile eta kirol-taldeentzako instalazioak bertan izango dira. Esprintik badago, ez dago toki gehiegi, baina beste baliabiderik ez zegoen.

Zuloak, behintzat, estali



Errepide konponketa, joan den astean: berandu eta erdizkakoa.

dituzte azkenean, ez gutxi kostata, gero. Izan ere, errepidearen egoera izan da antolatzaileen kezka nagusia, irteera adjudikatu zietela iaz jakin zutenetik. Udaletik Diputazioari iaz eskatu zioten konpontzeko, baina Foru Aldundian luzamenduetan aritu izan dira: agindu bai, baina

egin apenas.

Antolatzaileen aldetik, udalak borondatea jari duela, baina beharbada komeni beste presio ez duela egin komentatu izan dute. Azken momentuan, joan den astean pasatu ziren Diputazioaren makinak, errepideari erreparatsoa emateko.

Egindako konponketa, zuloen estaltzea izan da, ez da astirik egon erabateko asfaltatze berria egiteko, beste herri batzuetan ere Itzulirako konponketak egin behar izan omen dituztelako. Konponketak, gainera, Musakolatik Takolora egin dituzte, eta Mugarritte ukitu ere ez dute egin.

Edonola ere, duela 10 egun baino askoz hobeto dago orain errepidea. Lehengo zuloekin, "ez esprintik ez ezer", Jose Luis Etxeberria udaltzainburuak frogaren aurkezpenean adierazi zigun bezala.

Trafiko arazoak

Lasterketak trafiko arazoak sortuko ditu nahitanahiez, eta eragozpenengatik barkamena eskatzen du aurretiaz udaltzaingoa. Nolanahi ere, lekua egin behar da kaleetan, eta horregatik denon kolaborazioa eskatu du. Igandean, 3an, libratu egin beharko dira Biteriko aparkalekuak eta Garibai kalea ere bai, Ertzaindegitik Kontzeziñoraino. Bi grua ere izango dira herrian, kentzen ez diren autoak erretiratzeko. Eskatuko BMko aparkalekua ere libre uzteko eskatu dute.

Lasterketa egunetan Maalatik Takoloraino trafikoa moztuta egongo da, astelehenean 12.00etatik 18.00etara, eta asteartean 10.00etatik 14.30etara. Trafikoa desbideratu egingo da, eta Ertzaindegitik Zentrora, norabidea alderantziz joango da. Bestetik, kanpotik datozenentzat lekua egingo da. Bergararik datozenek Musakolako kiroldegian eta Eroskin izango dute aparkalekua. Aretxabaletatik datozenak Fagorrera bideratuko dituzte, San Andresera, eta berdin Bizkaitik datozenak ere.

T

xirrindularitza leintzarraren historia bildu dute datu jakingarriak betetako eskuliburu batean.

Egitaraua

Apirilaren 5a arte.

• Txirrindularitza Euskadin, argazki historikoen erakusketa. Monterronen.

Apirilak 2, larunbata.

• 19.00, Monterron. Txirrindulari buruzko hitzaldi-mahaingurua (txirrindulari, zuzendari, mediku eta adituekin).

Apirilak 3, igandean.

• 18.30etatik 21.00etara, eta 22.30etatik aurrera, Seber Altube Plazan. Eguzki taldearekin dantzaldia.

Apirilak 4, astelehena.

• 13.00. Talde eta txirrindularien aurkezpena, eta sinaketa ekitaldia.

• 14.00. Lehen etaparen irteera.

• 17.00. Lehen etaparen amaiera.

• 17.30etatik 21.30etara, Seber Altube plazan. Anaiak taldearekin dantzaldia.

Apirilak 5, asteartea.

• 12.00. Bigarren etaparen irteera.

1960tik, gaur zuri bitxi etas erlojugintzak katalogorik zabalena eskaintzeko



Zubiaga
Kale-barria, 18
20.560 ONATI
Tfnoa: 71 60 74

Zubiaga
Maalako Arrabala, 5
20.500 ARRASATE
Tfnoa: 79 19 25 FAX: 79 14 89

UNITED COLORS OF BENETTON

Maalako Arrabala, 13 ("Okendo Kirolak" en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE

a, eme...interiores

a, eme...
interiores

Etxeko ekipamendu osoa

Garibai, 9 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE



Asier Guenetxea eta Xabier Lazpiur

Goi mailako txirrindulariak

Inguruko errepideetan entrenatuz, bi atxabaltar hauek txirrindularitzaren gailurrera heldu dira: profesional mailara. Indurain, Rominger edo Delgado bezalako txirrindulari ezagunen alboan korritzen dute. Bizikletaren inguruan mugitzen den mundua ezagutu asmoz hitzegin dugu Asier Guenetxea eta Xabier Lazpiur txirrindulariekin.

- Noiztik profesionaletan?

Asier Guenetxea: Afizionatutan Fagor Lagun-Aro eta Kaiku-Gurelesan korritu ostean, 92an pasa nintzen profesionaletara. Artiach taldeak fitxatu ninduen eta ordutik talde horretan korritzen dut.

Xabier Lazpiur: Nik ere lehenengo Fagor Lagun-Aro eta Kaiku-Gurelesan korritu nuen. Profesional mailara 91an pasa nintzen. 3 urtez Baneston korritu dut eta joan zen urtean, Euskadi taldeak fitxatu ninduen.

- Zer behar da profesionaletara pasatzeko?

A.G.: Afizionatutan karre-

rak irabazi eta zortea eduki behar da. Aitapontekoak edukitzeak ere badu eraginik. Jende eraginkorrek txirrindularia ezagutzea garrantzitsua da.

X.L.: Jakina, oso ona bazara ez duzu horrelako beharrik, baina erdipurdikoa bazara, behar da halakorik ere.

- Nola hasi duzue aurtengo denboraldia?

A.G.: Hasi, ondo samar. Dagoeneko aurtun 3 karrera irabazi ditut. Baina gero jausi egin nintzen. Orain ikusi egin behar zer egiten dudan Euskadiko Itzulian. Ni ondo nabil, baina garaipenak lortu behar ditut.

X.L.: Zorte txarraz hasi dut denboraldi hau ere. Gabon inguruan hasi nintzen entrenatzen, baina iaz izan nuen lesio berbera agertu zait berri ere. Ziur ez dakit zer gertatzen zaidan, baina nerbioekin arazoren bat daukadala uste dut. Eskumako hanka lokartu egiten zait eta ez dago aurrera egiteko modurik. Hilabete baino gehiago daramat bizikleta ikutu gabe.

- Eta halakoetan nondik ateratzen da aurrera egiteko in-



Asierrek Artiach taldean korritzen du. Xabierrek, Euskadi taldean.

darra?

X.L.: Batzuetan egoera honek gainditu egiten nau, denbora luzea daroat arazo honekin. Hala egotea baino, nahiago dut bizikleta utzea. Aurtengo denboraldia erabakiorra izango da niretzat.

- Xabier, zer berezitasun du Asierrek?

Mentalizatzen bada, helburua lortu egiten du. Hori batzutan ona da baina beste batzutan, txarra. Ezin duela aurrera egin buruan sartzen bazaio, akabo.

- Eta Xabierrek, Asier? Todoterrenoa" da. Erlojujuz kontra ona da, eta karrera

luzeak ondo bukatzen ditu, oreka handia dauka. Gainera, bizikletaz korritzen jarraitu nahi horrek erakusten du zelako borondatea daukan.

- Bizitza diziplinatua darozue txirrindulariok.

X.L.: Bai, hala da. Gainera etxetik kanpo denboraldi luzeak pasatu behar izaten ditugu.

A.G.: Ezin dugu juerga handirik egin. Gure zeregina bizikletan ibili eta atsedean hartzea izaten da.

- Zenbat Km entrenatzen duzue?

A.G.: Nire media, egune-

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**

 **77 08 15**

 **EGVZKiGRAF**

**Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



ro 100 Km ingurukoa da.

X.L.: Urte osoan entrena-tu nuenean, 30.000 Km inguru egin nituen.

-Inguruan ditugun errepi-deak seguruak dira entrena-tzeko?

A.G.: Oñati eta Bergara inguruak arriskutsuak dira. Ez dago bizikletaz ibiltzeko to-kirik.

X.L.: Udaberri aldean Ara-ba aldera jotzen dugu; trafiko gutxi ibiltzen da eta errepi-deak hobeak dira.

-Nolakoa izaten da tropele-ko bizimodua?

X.L.: Oso monotonoa. Denbora guztian aurrekoaren gurpilari begira joaten gara. Ez da egoten paisaiari begira joateko astirik.

A.G.: Karrera serio doanean, ez da ezertarako astirik izaten.

-Txirrindulari ezagunen alboan korritzeko aukera izan duzue. Nolakoak dira?

X.L.: Indurain isila da, bai-na oso pertsona ona eta bro-mak egitea ere gustatzen zaio.

A.G.: Atzean joaten de-nean berba egin izan dut In-durainekin, eta gustatzen zaio brometan ibiltzea. "Gaurkoan sprintean irabaziko dizut", esaten dit berak. Nik berriz, "ba zuk mendate horretan zer-bait egin nahi baduzu, jar zai-tez nire gurpilaren atzean".

X.L.: Delgado izugarria da, izakera irekia dauka, de-nekin hitzegiten du. Oso jato-rra da.

A.G.: Belgak eta holanda-



Asier Euskadiko Itzuliko irteeran izango da. Xabier, berriz, lesionatuta dago.

rrak berriz, umeak bezalakoak dira. Influxente samarrak dira, tontokeria ugari egiten dute.

X.L.: Rominger apur bat egoista da, dena irabaztea gustatzen zaio.

A.G.: Tropelean, Romingerrek eta Chiappuccik ez dute oso fama ona.

-Txirrindulari ezagunek asko irabazten dute, baina besteok?

A.G.: Onenek asko irabazten dute, baina besteok ez. Sekulako desberdintasuna dago batzuen eta besteen artean.

X.L.: Oso ona ez bazara, txirrindularitzak ez dizu bizi-modua soluzionatzen.

-Tropelean zein da gehien entzuten den hizkuntza?

A.G.: Frantsesa.

X.L.: Nik profesionaletan ikasi dut frantses apur bat.

A.G.: Nik portugez apur bat.

-Eta euskara, tropelean entzuten da?

X.L.: Bai tropelean entzuten da euskara. Dakiguñok euskaraz hitzegiten dugu.

-Karreraren baten izan du-zuen egunik txarrena?

A.G.: Nik Portugaleko Itzulian. Behin 47° zeuden, nik ezin nuen aurrera jarraitu, oso gaizki pasa nuen. Baina bukaera itsaso ondoan zen eta atlantikoko haizeak jo zue-nez, etapa hori irabazi egin nuen. Oroitzapen txarra gera-tu zitzaidan.

X.L.: Nik Castilla eta Leongo itzulian. Ponferrada igotzen gindoazen eta edurra

hasi zuen. Izugarritzko hotza pasa genuen.

-Zelako da aurtengo Eus-kadiko Itzulia?

A.G.: Apur bat pasatu egin dira. Mendate gogorrik ez dago, baina asko bai. Hirugarren etapa adibidez mendatez josita dago. Gogorra izango da.

X.L.: Asier mentalizatu-a dago lehenengo etapa irabaz-teko, eta buruan sartzen ba-zaio, lortu egingo du. Ea zor-teak laguntzen dion eta Arra-sateko helmugan podiumean ikusten dugun.

-Bukatzeko. Zuen pronos-tikoa?


A.G.: Romingerrek iraba-ziko du.

X.L.: Etortzen bada, De la Santak.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

PEUGEOT - TALBOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07



Afizionatuak: lehia bizi eta gogorreko kategoria

Profesionalen elite estuaren eta txirrindulari gaztetxo ugarien artean, erdibideko maila bat dago: afizionatue-na. Deba Garaiko zenbait karrerista gazte ari dira korritzen talde amateur desberdinetan, eta talde bat ere bada-gu, Oñati Karabanak izene-koa.

Jubeniletako adina pasatakoan, txirrindularitzan ja-rraitu nahi duten gazteek, egu-tegi gogor eta lehiakorrean aritu behar izaten dute. Txirrindulari elkarte eta eskolen-tzat ere, erronka handia da amateurren taldea antolatzea: diru aldetik, azpiegitura sendo bat izatera behartuta daude, eta beraz, etxe haundi baten babesa ezinbestekoa da ia beti, profesionalen kasuan gertatzen den bezala.

Deba Garaian, haur eta jubentilatzaile korritzeko aukera apartak daude, Dorletako Ama Txirrindulari Eskolari esker. Baina, amateurren mailan, beste kontu bat da. Dorletako Amako arduradunak beti saiatu izan dira jubentilatzaile pasatzen diren gazteei aukerak ematen. Garai batean, Dorletako Amak bere talde afizionatua zeukan, Fagor; baina ekipo hori desagertu egin zen duela sei urte. Arrazoi ekonomikoa izan zen, batipat.

Aurten, azkenik, beste talde bat eratu da eskualdean,

Zubillaga auzoan kokatuta dagoen Oñati Karabanak etxearen babesaz. Talde horretan, eskualdeko eta kanpoko txirrindulariak hasi dira korritzen, baina bere helburuetako bat Dorletako Aman "edadez pasatzen" direnei aukera bat ematea da. Bi ekipo ditu Oñati Karabanak taldeak, 1. mailakoa eta 2. mailakoa.

Oñatiko taldeaz aparte, beste txirrindulari batzuk ere badabilta hortik zehar. Ruben Ramos eta Andoni Garcia arrasatearrak La Fortaleza eta Urretxu Margoak taldeetan ari dira, eta Urretxun dabil, era berean, Igor Gue-netxea atxabaltarra ere. Iñigo

eta Alberto Roldan atxabaltarrak Altsasuko Caja Rural taldean daude. Guzti horietarik, Iñigo Roldan da orain arte ondoen ibili dena. Iazko denboraldian hiru garaipen lortu zituen, eta euskal txirrindularitzako promesa gazteetako bat da, 20 urterekin.

LASTERKETAK

Txirrindularitza amateurren presentzia antolatzen diren lasterketetan iger-tzen da Deba Garaian. Euskal Herriko egutegian bi txapelketa nagusi jokatzeko diren, Euskaldun Txapela (1. eta 2. mailakoentzat), eta Lehendakari Txapela (2. mailakoentzat).



Agustin Sagasti (aurten Euskadi taldean), garaile iaz San Juan sarian.

Lehiaketa horien barne, honako frogak korrituko dira gure eskualdean: Pazkoetako saria (Lehendakari, Bergara, maiatzak 22), San Juan saria (Euskaldun, Arrasate, ekainak 25, 130 kilometroko froga), San Pedro saria (Lehendakari, Eskoriatza, ekainak 30), Mendiko Kriteriuma (Euskaldun, Elgeta, uztailak 2), Antzuolako Froga (Lehendakari, uztailak 17) eta Leintzeko Itzulia (Euskaldun, Aretxabaleta, abuztuak 16).

Karrera horien artean, Arrasateko San Juan saria da garrantzitsua. Lasterketa hau da Arrasateko Txirrindulari Elkarteak urtero egiten duen antolakuntza lan handiena (aurtengoak salbu, jakina). Iaz, gainera, prestigio bat ematearren, sarietan diru kopuruak hobeto hornitzea erabaki zuten, eta aurten ere bide horretatik segituko dute. Hala ere, San Juanen inguruan froga asko korritzen da eta zaila da elitea hona ekartzea. Horregatik, beste herri batzuekin *challenge* bat antolatzea pentsatzen ari dira elkarteak; hau da, karrera desberdinen artean puntuazio sistema bat egitea, sari bateratu askoz garrantzitsuagoekin.

Afizionatuentzako lasterketa horrez gain, Arrasateko Txirrindulari Elkarteak beste karrera batzuk ere antolatzen ditu. Aurtengo egutegia hau izango da: Udaberri saria (jubentilatzaile, apirilak 24, 81 km), San Isidro saria (2. urteko kadeteak, maiatzak 14, 60km) eta Al Andalus saria (1. urteko kadeteak, maiatzak 28, 55 km).

LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZA ARAZOAK
HIZKETA ARAZOAK
AHOTS ARAZOAK
IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK


Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

Monte
taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE



Gazte asko mugitzen da Dorletako Ama Eskolaren inguruan.

Dorletako Ama Txirrindulari Eskola 1974. urtetik gure txirrindulariak hezitzen

Txirrindularitzan, Euskal Herrian hain sakonki sustraitu den kirol honetan, zeresan handia izan du Dorletako Amaren Eskolak. Eskola horren jatorria, 1974. urtean aurkitzen dugu, 1974. urteko irailaren 30ean zehazki.

Dorletako Amaren Eskola sortzea posible egin zuen faktore garrantzitsu bat gerta-

tu zen garai hartan: Eskola ofizialki sortu baino lehen bailaran zegoen txirrindulari mugimendua, "Makatzena" txirrindulari mugimendua. Txirrindularitzarekiko interesa zegoela ikusita, hainbat kirol entitatek zerbait "handiagoa" egitea erabaki zuten: Arrasateko eta Aretxabale-tako Txirrindulari Elkartek

eta Almenek, Dorletako Ama Txirrindulari Eskola sortu zuten. Garai hartan, Oñatiko Aloña Mendi kirol taldearekin hasi zuten martxa baina bi urte beranduago, bakoitzak bere bideari jarraitu zion.

Dena dela, lehen urteetan ikasle gutxi zegoen eskolan, txirrindulari eskolaren gaia berria baitzen.

GAUR EGUN

Gaur egun, 48 ikasle daude eskolan. Gipuzkoan mailan, txirrindulari gehien dituen 2. eskola da Dorletako Ama. Bost kategoriak osatzen dute Dorletako Ama Txirrindulari Eskola:

— **Infantilak:** 13-14 urte bitartekoak. Bi urtez egoten dira kategoria horretan.

Begoña

lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auza,
Tfnoa: 79 03 73



Ferreries. 79 87 62



Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118



— **Ingo urteko Kadeteak:** 15 urteko txirrindulariek osatzen dute.

— **2. urteko Kadeteak:** 16 urteko txirrindulariek osatzen dute.

Aipatzekoa da, beste probintzia batzuetan kategorია hau ez dela bereizten. Dorletako Ama Txirrindulari eskolak kategoría honen banaketa egitearen arrazoia, momentuotan kategoría honetan dagoen txirrindulari ikasle kopuru handia da.

— **Ingo urteko Jubenilak:** 17 urteko txirrindulariek osatzen dute.

— **2. urteko Jubenilak:** 18 urteko txirrindulariek osatzen dute.

Jubenilekin bukatzen dira kategoriak. Ondoren, Afizionatuen taldea dago. Afizionatuen taldeak eskolatik kanpo funtzionatzen du, nahiz eta garai batean, eskolak kategoría honetako talde bat izan zuten. Afizionatuen taldea Profesionalarako tranpolina da: afizionatuetan dabilen txirrindularia, talde profesionalen ikusmiran dago beti. Gaur egun, eskola honetatik pasatako 18 bat txirrindulari egongo dira afizionatuetan lasterka egiten.

Momentuotan, Infantilen kategorian txirrindulari gehiago sar daitezten, kanpaina bat egiten ari da eskola, 6 mutil besterik ez baitaude kategoría horretan. "Gure eskolaren erronka ez da txapeldunak hezitzea edo egitea. Guk nahi duguna, gazteak kirola egitera bultzatzea da, besterik ez. Mutilen bat ona bada eta aukerak baditu, orduan lagundu

egiten diogu, jakina: Txirrindulari profesionala izatera heldu badaiteke, ondo baino hobeto! Hori bai, sekula ez da txirrindulari gaztea "matxakatu" behar" dio Jose Maria Roldanek, eskolako presidentek.

BABESLEAK ETA FINANTZIAZIOA

Eskola patrozinadoreen bidez finantziatzen da gehien bat. Hauek erropa ematen diote eskolari eta orainarte, bidaiak ere ordaindu izan dituzte. Momentuotan, krisiak txoko guztiak bustitzen dituela eta, bidaien gastua eskolak hartu behar izan du bere gain.

Patrozinadoreez gain, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako udalteez ere diru laguntza eskaintzen diote eskolari, eta noski, baita Arrasateko eta Aretxabaletako Txirrindulari elkarteek, Deba Garaiko Txi-

rindulari taldeak eta Eskoriatzako Kirol Elkarteak ere.

Dorletako Ama Txirrindulari eskolak, 80 bazkide ditu eta hauek urtero ordaintzen duten 1000 PTako kuotaren bidez ere finantziatzen da eskola. Diru-iturri hauetaz gain, errifak eta kamisetak ere saltzen ditu eskolak noizean behin.

PROFESIONALEN HARROBIA

Jose Maria Roldani eskolaren gaur egungo egoeraz galdetzen zaionean, txirrindulari eskola baten garai onak "urteka" etortzen direla dio, hau da, urte onak jarraian, bata bestearen atzean etortzen direla: "Urte onenak igaro dira dagoeneko, 85-92 urte bitartea izan zen onena. Lazpiur, Guenetxea eta Roldanekin Txirrindulari onak urteka ateratzen direla esaten da. Dena dela, edozein momentutan

aurki gaitzeko promesa batekin; momentuotan, oso ondo dabilen mutil bat daukagu, Xabier Lazpiur-en anaia hain zuzen."

Bestalde, kontutan hartu behar da eskola honetatik 3 profesional atera direla: Alonso, Lazpiur eta Guenetxea.

Eskolak lortu dituen garaipenak ere ez dira batere makalak izan: 1993. urtean, Gipuzkoako txirrindu eta ziklokros txapelketetan, kadete mailan, oso emaitza onak lortu zituzten. Estatu mailako txapelketan, 1991. urtean, Euskadiko selekzioan parte hartu eta irabazi egin zuten ekipok, Inigo Roldanek lehen postua lortuz. 1989. urtean, Kadeteek, Euskal Herriko Ziklokros Txapelketa irabazi zuten.

TXIRRINDULARITZA IKASTETXEETAN

Duela 3 urte hasi zen txirrindularitza Kirol Eskolaren barruan martxan. Diputazioak Dorletako Ama Txirrindulari Eskolari utzitako materialarekin eta 2 monitorerekin, 5 ikastetxetan ari dira txirrindularitza bultzatzen: umei bizikleta zer den azaldu eta txirrindularitzari buruzko hitzaldiak antolatzen dituzte. Guztira, 300 bat mutilekin ari dira lanean, urtean 3 hilabetean.

Kirol Eskolaren barruan lan egiten hasi baino lehen, eskolak beste bi kategoría zituen: Benjaminak. 10-11 urteko gazteak ziren baina Diputazioak Kirol Eskolaren proiektua martxan jarri zutenean, 2 kategoría hauek desagertu egin ziren eskolatik.

Eta neskak, zer?

Momentuotan, ez dago neskarik eskolan. Lau neska-txirrindulari izan dituzte baina dagoeneko alde egin dute. Jose Maria Roldanek dioenez, 16 edo 17 urte betetzen dituztenean, utzi egiten dute bizikleta: "Horren aurka kanpaina egiten dugu; egia esan, ez dakit nesken edo euren gurasoen kulpak den. Aurtengo adibidez, bi neskak eman zuten izena baina euren gurasoak enteratu zirenean, utzi egin behar izan zuten." Jose Maria Roldanek dioenez, arazo horren mamia eskolaren aurrekontu eskaxean dago: "Karreretara joateko autobusik ez dugunez, txirrindulari bakoitzaren gurasoak arduratzen dira mutila eramateaz, eta horrek gurasoarentzat esfortzu berezia esan nahi du. Eurentzat nahiko gogorra da semea karreretara eramateko euren gauzak egiteari utzi behar izatea." Izan ere, aurtengo eskolaren asmoen barne, neskak erakartzeko kanpaina zegoen, baina Diputazioak eman duen diru kopuru eskaxa dela eta, ezin izan da kanpaina hori burutu. Eskolaren aurtengo aurrekontua, 4.360.000 PTAKoa izan da; iazkoa aldiz, 4.600.000 PTAKoa. Krisiak alde guztiak jotzen ditu.

MURU
I. A. T. Lehen azterketa dohain
Zure VOLVO-a 2.200.000PTAtik
Araba Etorbidea, 3 Tfnoa: 79 27 16

Izozkitegia S. L.
Gozotegia - Italiar Izozkitegia - Kafetegia
Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 81 68
ARRASATE



Dorletako Ama Birjina denok ezagutzen dugu txirrindularien zaindaria gisa, eta asko eta asko dira urtean behin behintzat bisita egin eta laguntza eskatzen dioten txirrindulari eta zikloturistak. Lorez ingurututa egoten daki Arlabango gainean dagoen iru-

diak. Erretratu hau ere horietako ibilaldiren batekoa izango da, Markiegiren "seiscientos"aren gainean Ama Birjinaren irudia eraman zutekoa, eta berau aprobetxatu nahi izan dugu Dorletako Amaren zaindaritzaren inguruan dauden gorabeherak kontatzeko.

Izan ere, egindako ahalegin guztiengatik ere Erromako Elizak ez du oraindik errekozimendu kanonikoa eman, txirrindulari guztien zaindaria izan dadin. Esaten denez, Kataluniako gotzai bat izan zen Vaticanoaren baimena oztopatu zuena, estatuko ki-

rolari guztien zaindaria bakarrra Montserrat-eko Ama dela esanez.

Txirrindulari euskaldunen zaindaria bada hala ere Dorletakoa, eta irudiaren bedeinkapena 1958ko azaroaren 26an egin zuen Arlabanen On Jose Luis Iñarra parroko eta artzizpresteak.

Aita Santuaren errekozimendua lortze aldera egindako ahalegin ezberdinen artean, hiru txirrindulari gaztek (bi bilbotar eta gasteitzar batek) egin zuten ibilbidea aipagarri. Bizikletan joan ziren Erromara. Juan XXIII.ak hartu zituen audientzia berezian.

Bitartean federazio ezberdinen arteko adostasun eta batasunak batu ziren eta 1975eko irailaren 8an ospatu zen Federazioek antolatuta, txirrindulari guztien zaindaria izendatzen zuen ekitaldi hunkigarria.


Dorletako Ama esaten zaio, baina Jasokundeko Ama da Gatzagako Dorletako Santutegian dagoena, eta Gazteluko Ama izenez ere ezagutzen da.

Ama Birjinaren inguruan egin diren ekitaldien artean, "Adiskidetasunaren antortxa" eta "Pedalaren jai" ere aipagarri dira.

Uriarte
SPORT
Olarte, 6
Tfnoa: 79 27 78

beinke

LANDALUZE
HARRATEGIA - URDAITEGIA
ITUPRIOTZ KALEA, 7
TELEFONO 791486
ARRASATE



1953ko ekainak 21, Jesus Altuna "Barrena" txirrindulariaren azken metroak.

L

uistarren karrera egin zen urte bateko amaierako espri-na dugu hau. 1953ko ekaina-

ren 21a zen. **Jesus Altuna** "Barrena" txirrindulari mon-drauetarra, Barrena baserriko semea, istripua izan baino metro gutxi lehenago hartzen du erretratu honek. Gaur egun Olarte kalea den horretan ze-goen taberna batek, Bar Lo-

renzok, sari berezia jartzen zuen sprintean, eta sari hori eskuratu nahian zebilen Barrenakoa. Aurreraxeago mo-tor baten kontrako istripu lar-ria izan zuen eta buru-hezu-rra apurturik, hurrengo egu-nean hil zen, 18 urte zituela.

Afizionatuen mailan korritu zuen 1952 eta 1953an.

Egun hartako karrera bere lagun handi batek irabazi zuen, Igarzak, eta lagunaren heriotzak eraginda utzi ei zuen geroago kompetizio mailako txirrindularitza.

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE



L

arugaldeko jaietan oso ospetsua eta tradizio handikoa izaten zen txirrindularien froga. San Agustin egunean izaten zen, abuztuaren 28an. 1956-58 urteen arteko karre-
ra batera **Jesus Loroño** ere etorri zen, eta **Ana Mari Arana Etxabe** mondrauetarrekin ageri da erretratu honetan, neskak saria ematen zion bitartean aterata, Zarugaldeko labaderoaren aurrekaldean.

Loroño, Bahamontes-ekin batera garai hartako txirrindulari onenetakoa zen. 1926an Larrabetzun jaioa, 1947tik 1962ra ibili zen profesionaletan. Bere palmare-sari dagokionez, Espainiako



Mendiko Sariketa irabazi zuen 1954an, Volta a Catalunya 1957an, Arantzazurako igoera 1947an eta Arratekoa

1949an. Tourrean bost bider hartu zuen parte, eta 1957an 5. egin zuen. Vuelta-n, berriz, urtero izan zen 1955 eta

1962a bitartean, eta 1957an garaile izan zen. Espainiako Txapelketan, berriz, 60 eta 61ean 2. geratu zen.

BIZIKLETAREN BOUTIQUEA

*Mendiko eta errepideko bizikletak
Era guztietako osagarriak*


**Bizkaia Etorb. 10 - ARRASATE -
TFNOA: 79 65 34**



• AIPUA •

*Nire izen onari
eustea nabikoa
aberastasun.
MONTAGNE*

• JEROGLIFIKOA •



Beltzik ez badago...

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
12			13	14		15	16
17							
18							19
20					21		

J. B. AGORRIA

Horizontala 1. Mikel Irizarren ATBko programa. 9. Zorroa. Emakumezko gurasoa. 12. Lastima. 15. Einsteinioa. 17. Aitzakia. 18. Guzti. 19. Omen. 20. Gernuak duen substantzia. 21. Saldu aditzaren infinitiboa.

Bertikalak 1. Itzali. 2. Oharkor. 3. Izapide. 4. Erbioa. 5. Barioa. 6. Eusko Langileen Alkartasuna. 7. Ondoeza. 8. Bizkaiko udala. 13. Lau aldiz lehen bokala. 14. ALKALI bat osatzeko kontsonanteak. 16. Arlo.

• HOROSKOPOA •

Aries Udaberrian zure lagunarekin dituzun harremanak sendotu egingo dituzu.

Taurus Itxurarako ere ona da noizean behin ilea moztea.

Gemini Zure amak egin duzunaren berri izango balu!...

Cancer Gauza handia egin duzu. Hala ere, jarraitu zu zeu izaten.

Leo Zure lagunekin gehiegi fidatzeagatik ondorio larriak izango dituzu.

Virgo Ai, txotxolo/a! Alperrik da hura joan eta gero presa egitea!

Libra Txokolate gehiegi jateagatik extralipausia bat sor dakizuke.

Scorpio Konplexu txoro horiek alboratu ziko bazenitu...

Sagitarium Zure begirada xumeak jende asko liluratzen du.

Capricorn Harrokeria hori dela eta, momentu txarrak pasatu beharrean izango zara; beraz, badakizu zer egin.

Aquarius Aitaren esanari kasu egiteak mesede ugari ekarriko lizuke hainbat momentutan.

Piscis Guztietan onena izatea atsegin duzu. Utzi mozolokeria horiek alde batera.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

ZER NAHIAGO?

Mari Gil Gil

Ola oste bizikleta dendakoa

- Zenbat bizikleta marka dituzue? Sei.
- Zein da gehien eskatzen dena? "Mendi" eta "Contini".
- Dendan daukazuen bizikletarik garestienak zenbat balio du? 200.000 PTA.
- Zeren arabera izaten da bizikleta bat hobe edo txarragoa? "Kuardro" arabera.
- Txirrindulari itzulia gertu dela eta, gehiago saltzen da? Ez.
- Gazte-Txartelarekin egiten duzue beherapenik? Ez, baina Besaideko edo txirrindulari talderen bateko bazkide direnei, bai.
- Itzulirako faboritorik? Alfonso Gutierrez edo Mikel Zarrabeitia.
- Noiz zabaldu zenuten denda? Duela 10 urte.
- Arrasaten egongo zara itzuliaren lehenengo bi egunetan? Bai.
- Zilarra ala urrea? Urrea.
- Zerk kezkatzen zaitu momentuotan? Langabezia.
- Entzuten duzu irratia? Bai, asko.
- Zein emisora? Loiola Irratia, COPE edo Euskadi Irratia.
- Kazetari bat? Mariano Ferrer.
- Zer dela eta "Olaoste" izena? Lehen hemen zegoen baserriaren izena zelako.
- Etxeko lanak zuk egiten dituzu? Bai.
- Zein lan da gutxien gustatzen zaizuna? Plantxa.
- Zein koloretakoa da zure hortz-eskubila? Txuria.
- Inoiz eman dizuten sustorik handiena? Behin nire semeak istripu bat izan zuela esan zidaten; zentrorra joan nintzen eta gezurra zen.
- Maiteminduta zaude? Bai.
- Zer aldatuko zenuke zure etxean? Sukaldea.
- Zer daukazu momentu honetan poltsikoetan? Ezer ere ez.



BERTSOAK

Oporrak ala Itzulia?

Opor garaian ohitura dugu herritik behintzat atera! baina auten berriz kanpotik dator txirrindulari karrera. Aste Santuan izango duzu hemen geratzen bazera urrutikoa herrian bertan ezagutzeko aukera.

Txirrindulari ospetsu asko omen dator guregana ikusiko da Arrasateren txirrinduzale izana. Horretarako hainbat lagunek oporretan ere lana, egin den beste ahaleginekin, ondo irten bedi dana.

SOLUZIOAK

JEROGLIPIKOA

Bila zurta.
16. Sal.
Telea. 8. Ea. 13. AAAA. 14. LKL.
3. Tramite. 4. Er. 5. Ba. 6. ELA. 7.
Bertikalak 1. Amataru. 2. Somakor.
20. Urea. 21. Sal.
15. Ea. 17. Akakula. 18. Total. 19. Et.
rralea. 10. Ama. 11. Al. 12. Tamal.
Horizontalak 1. Asebete. 9. Mo-
GURUTZEGRAMA

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

APIRIKAK 24
EUSKALDIJUNON
Egunkaria
REN aldeko
GOIZEKO 11etan
ANTIGUAKO
IV. KROSA
KUOTA:
1.000 pzta / 50 libera
INSKRIPZIO EPEA:
Apirilaren 11tik 21era
INSKRIPZIO PUNTUAK:
Loramendi Kirolak
Korrikalari guztiei kamixeta bana oparituko zaie,
eta BI BIDAIA zozketatuko dira
"La Caixa" KIROLAREKIN
KELER

Onduline TXOMIN HERIZ
URALITA
eraikuntzarako materialak
Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Garajea salgai.** Irekia (marraduna). Uribarri Etorbidean. Tfnoa: 79 85 24. Eguerdietan.
- **Maiatzetik edo ekainetik** aurrera etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 77 12 00. Yolanda (Ikerlan).
- **Erdialdean** etxebizitza alokatzen da, guztiz amueblatua eta kalefakzioaz. Interesatuok dei egin 79 35 50 tfnora, arratsaldez.
- **Bi lagun gara** eta apartamendu bat alokatu edo pisu bat konpartituko genuke Arrasate edo inguruan. Tfnoa: 36 14 50. Mikel. Dei egin 9,30etatik aurrera.
- **Apartamendua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta berogailuaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gaez deitu. Luis.0
- **San Bixente kalean,** bulegotarako etxebehea alokatzen da. Tfnoa: 79 32 16.
- **Zure etxean gela bat libre** baduzu, neuk alokatuko dizut. Tfnoa: 77 04 98. Irene. Bulego orduetan deitu.
- **Etxebizitza salgai Uribe auzoan.** 90m2takoa. 2 gela, 2 bainu, garajea, trastelekua eta ganbara ditu. Hobekuntza ugari egindakoa da. Tfnoa: 79 37 99. Mikel. 8etatik 3etara

Lana

- **Neska bat** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 39 49.
- **OHO n diplomatuak** eta Euskal Filologian lizentziatuak, OHO eta euskara klaseak ematen ditu Eskoriatzan. Tfnoa: 71 40 39. Ana.

- **Enpresa lizentziatuak** Administrari gisa egingo luke lan, edo kontabilitate, matematika edo finantza matematikazko klaseak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.
- **Andra euskalduna,** etxeko lanak egin eta haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko prest legoke. Tfnoa: 79 07 73.
- **Esperientziadun andrea etxeko garbiketak** egin eta haurrak zaintzeko prest dago. Bulego eta atariak ere garbituko nituzke. Dei egin 79 31 44 tfnora. Miriam.
- **Emakume euskalduna** eta esperientziaduna eskaintzen da garbiketak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. (Orduka). Tfnoa: 79 96 31.
- **Emakumea eskaintzen da** garbiketak egiteko, etxeak, bulegoak...Interesatuoki dei egin dezala 79 63 27 tfnora. Natividad Uriarte.
- **Inglaterrara au-pair** bezala joateko konfidantzazko famili bat ezagutzen dut. Tfnoa: 79 24 59. Kris.
- **Masajeak etxean** emateko prest. Estheticienne eta kiro-masajista naiz. Tfnoa: 79 72 29. (Mari Karmen).
- **Esperientziadun neska** haurrak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 77 94.
- **Neska bat etxeko lanak** edo bulegoak garbitzeko prest. Tfnoa: 79 49 05. Edurne.

Salerosketak

- **Bibolina** jotzen ikasi nahi baduzu, nik daukat behar duzun bibolina. Berri-berria. Tfnoa: 79 08 79. Karol.

- **YAMAHA SZR 600 motorra** saltzen da. Berrikusita eta puntuan jarrita. Motor eder bat erosi nahi baduzu, deitu 79 91 59 tfnora. (Gaez). Xabier.
- **Salgai: Amstrad 2086 PC** ordenagailua. Barruko 3 1/2 tako disketera, kanpoko 5 1/4 tako disketera, VGA pantaila, xagua, Acad diskoak, D Base diskoak, Lotus diskoak, jokuak. Prezioa: 30.000 PTA. Interesatuok dei egin 79 56 83 zbkira eta Eduardoz galdetu.
- **Argazki kamara** saltzen da, automatikoa, 2 objektiboduna. PRAKTIKA Bx20 markakoa. Berria. Interesatuek dei egin 79 49 05. Edurne.

Denetarik

- **Telebista bat bota** behar baduzu eta oraindik martxan badabil, akordatu nitaz. Tfnoa: 79 25 47.
- **Urrezko pultsera** galdu nuen San Andresen ostiralean. Eskertuko da. Tfnoa: 79 07 69. Felisa.
- **Zilarrezko pultsera** aurkitu dut. Maribi izena darama eta San Valentin eguneko data azaltzen da. Zurea bada, dei egin 79 09 00 tfnora. Josefe.
- **Norbaitek oparituko** balit, egongelarako alfonbra, gustora ametituko nuke. Tfnoa: 79 64 50.
- **Platinozko belarririk** perladuna galdu zait, Zerkaostetatik Eskualde Ospitalera bidean. Tfnoa: 79 22 09. Eskertuko da.
- **Neskatalaren batek** poltsa bat ahaztuta utzi zuen Gazte Bulegoan, barruan bainujantzia (loraduna), bainu kapela, e.a. dituen.

Aste Gazte

Bekak

• Diputazioko Kultura eta Turismo departamentuak beka hauen deialdia egin du:

1) Espezializazio bekak ondorengo arloetan: musika, dantza, antzerkia, ikusentzutekoak, arte plastikoak, errestaurazioa, museologia.

2) Arte sorkuntzarako bekak: arte plastikoa, argazkigintza, literatura eta musika konposaketa.

3) "Nicanor Zabaleta" musika beka.

4) Historia ikerketarako

bekak.

5) Bideografi alorreko sorpenerako laguntzak.

6) Arte plastikoetan eta ikus-entzutekoetan sustapen artistikorako laguntzak.

7) Arte alorreko iraupen laburreko ihardueta parte hartzeko laguntza poltsak.

Epea: maiatzak 31 (1-6) eta ekainak 30 (7).

Udalekuak

Adina: 7-13 urte (aurten 14 betetzen dutenak ez dira sartzen). Toki ezberdinak, datak, hizkuntz modalitateak

eta adinen arabera. Aurten-go nobedadea: plazak zozketa bidez banatu behar dira. Zozketarako izena emateko epea: apirilak 11-12.

Naturan abenturazko kirol iharduera

Adina: 15-29 urte. Egun batekoa (5.900 pta), asteburukoa (12.950 pta) nahiz astebeteko (22.000 pta) iharduerak aukeran. Kirol moeta desberdinak: Rafting, hidrospeed, kanoietan behera jaistea, eskalada, arku tiraketa, hipika, piraguismoa...Irteerak: apirilaren 11tik maiatzaren 31ra.

"Nobela gure belau-naldikoan erlijioa zen, gure marihuana zen, sexua zen, iraultza zen,...eta gure kontsolazioa zen: nobela batekin inoiz ez zeunden bakarrik."

BARBARA PROBST SOLOMON, NOBELAGILE IPARRAMERIKARRAK



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Itxe

Altzarigintza eta
dekorazioa
Ferrerias, 17 ARRASATE
☎ - FAX 79 03 17



GOZATU EGUZKIA!

PAYOT

Eguzki krema eta babes bereziak azal mota guztientzat eta sentikorrentzat batez ere.

PROMOZIO BEREZIA

2 Produktu erosteagatik
PAYOT-ek 3.a oparitzen dizu



Maalako Arrabala, 13 ("Okendo Kiroalak"en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE

UNITED COLORS
OF BENNETTON.